

## **Maiatzaren 31ko 5/2005 FORU-ARAU, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena (BAO Ekainaren 16koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005.eko maiatzaren 31ko osoko bilkuran, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru-Araua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU-ARAU, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUENA

### **HITZAURREA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Ekonomi Jaurpideari buruzko urriaren 14ko 10/1997 Foru Arauan ematen dira, zenbait artikulutan, foru sektore publikoaren diru-laguntzei buruzko arauak.

Gaur egun gehitu egin da diru-laguntzak emateko jarduna, eta gehitu egin dira, ere berean, laguntza-moten, pertsona onuradunen eta inguruabarren aniztasun eta askotarikotasuna. Beraz, 10/1997 Foru Araua ez ezik, beste arau batzuetara ere Administrazio Prozeduraren Legera edo Kontratuei buruzko Legera, kasu jo behar izaten da halako egintza administratiboak garatzeko. Egoera horretan izanik, beharrezkoa da indarrean dagoen arautegia eguneratzea.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da diru-laguntzen inguruko kontu guztiak ahalik eta modurik zabalenean eta bateratuenean arautzea, eta, delako arau horren artikuluetan, kudeaketa administratiboan azaltzen diren kasurik gehienei erantzuteko aukera ematen duten alderdi guztiak aintzat hartzea. Horrez gain, gogoan izan behar da kudeaketa guztietan behar diren eraginkortasun eta eragimen mailak igotzea ekarri behar duela arauaren aplikazioak.

Horretarako, egungo Ekonomi Jaurpideari buruzko 10/1997 Foru Araua alda liteke, baina arautegiaren konplexutasun eta zabaltasuna kontuan harturik, egokiago iritzi zaio foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzei buruzko foru arau berariazkoa garatzeari.

Bestetik, lurralde historikoen, beren eskumenak garatu eta betetzeko, araugintza-ahalmen autonomoa duteneko ekonomia- eta finantza-eremuari dagokio diru-laguntzen gaia, Ekonomia Itunaren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipaturiko eskumen horretan oinarriturik osatu da diru-laguntzei buruzko foru arau hau, ondoko eduki hauekin:

ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA: FORU ARAUAREN APLIKAZIO EREMUA.

II. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZA PUBLIKO GUZTIETARAKO XEDAPENAK

I. TITULUA: DIRU-LAGUNTZAK EMAN ETA KUDEATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

II. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKAREN BITARTEZ EMATEKO PROZEDURA

### III. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA

#### IV. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOA KUDEATU ETA JUSTIFIKATZEKO PROZEDURA

### V. KAPITULUA: AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA

## II. TITULUA: DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA

### I. KAPITULUA: ITZULKETA

### II. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA

## III. TITULUA: DIRU-LAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA

### IV. TITULUA: DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

#### I. KAPITULUA: ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

#### II. KAPITULUA: ZEHAPENAK

Foru arau honek hirurogeita hiru artikulua ditu. Horrez gain, bederatzi xedapen gehigarri, aldi baterako bi xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ere badira, aipaturiko artikuluen osagarri.

Foru arau hau definitzen duten xedapen orokorrak lehenengo hemeretzi artikuluetan biltzen dira, atariko titulua osatzen duten bi kapituluetan egituraturik. Xedapen orokor horietan xedatzen denez, publikotasunaren, gardentasunaren, lehiakortasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituz egin behar da diru-laguntzen kudeaketa, eta beste hainbesteko garrantzia emango zaio kudeaketa-lanak eraginkortasun eta eragimen printzipioen arabera egiteari. Printzipio horiek, bada, ondorengo artikuluetako xedapenak kokatzeko parametroak ematen dizkigute.

Atariko tituluak, diru-laguntzaren kontzeptua definitzeaz gain, diru-laguntzak emateko betekizunak zehaztu, eta diru-laguntzak emateko organo eskudunak zeintzuk diren adierazten da. Horrez gain, pertsona onuradunak eta erakunde laguntzaileak zeintzuk izan daitezkeen zehazten da, baita haien betekizun eta betebeharrak ere. Azkenez, diru-laguntza emateko oinarri-arauen gutxienezko edukia zehazten da.

Diru-laguntzak emateko, kudeatzeko eta, kasuan kasu, itzultzeko prozedurak ezartzen dituzte lehenengo eta bigarren tituluak, zazpi kapitulutan. Hortaz, hogeigarren artikulutik hogeita seigarrenera diru-laguntzak emateko bi modu arautzen dira —diru-laguntzak norgehiagokaren bitartez emateko araubidea eta zuzenean ematekoa, alegia—, eta haietariko bakoitzaren berezitasunak ezartzen dira, diru-laguntzaren helburu edo izaeraren arabera. Aipaturiko tituluak osatzen dituzten artikuluetan, justifikatzeko eta gastua nahiz ordainketa onesteko prozedurak ezartzen dira, eta, azkenez, jasotako diru-kopuruak itzuli beharra ezartzeko arrazoi eta irizpideak zehazten dira.

Hirugarren tituluak, diru-laguntzen finantza-kontrola arautzen da: kontrol eginkizunen xedea eta edukiak zehazten dira, kontrol eskumena nork duen adierazten da, kontrola egiteko prozedura zehazten da, eta laguntzeko betebeharra ezartzen zaie pertsona onuradunei, erakunde laguntzaileei eta diru-laguntzaren xedearekin zerikusia duten hirugarrenei. Azken finean, diru-laguntzak kudeatzean xedapen orokorretan aipaturiko printzipioei jarraitzeko erabakia berresten da titulu honetako xedapenen bitartez.

Laugarren tituluak, gainerako artikuluetan, arau-haustek gertatzen diren kasuetan baliatu beharreko arauak jasotzen dira, arau-haustek definituz eta dagozkien zehapenak zehaztuz.

Amaitzeko, kasu jakin batzuetan jarraitu beharreko irizpideak ezartzen dira, besteak beste, foru arau honen xedapen gehigarri eta aldi baterako xedapenetan, hala nola sariak emateari, udal finantzabideari, prozeduren aldi baterako araubideari eta zenbatekoak zehazteari buruzkoak. Halaber, foru arau honen bidez eguneratzen diren diru-laguntzei buruzko arauak indargabetzen dira xedapen baten bidez, eta foru arau hau noiz jarri behar den indarrean xedatzen da azken xedapenean.

Beren-beregi adierazi behar da diru-laguntzei buruzko foru arau honetan kontuan hartu direla emakume eta gizonen arteko aukeraber dintasunerako eta genero politiketarako foru planaren jarraipena egiteko sail-arteko batzordearen ekarpenak, generoaren ikuspegia foru arauaren testuan txertatzeko.

Izan ere, Gobernuak egiten dituen xedapen arauemaileetan generoaren eraginaren balorazioa txertatzeko neurriei buruzko urriaren 13ko 30/2003 Legearen edukian eta Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean oinarritzen dira aipaturiko ekarpenok.

## **ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **I. KAPITULUA FORU ARAUAREN APLIKAZIO EREMUA**

#### **1. artikulua. Xedea.**

Foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzea da foru arau honen xedea.

#### **2. artikulua. Diru-laguntza kontzeptua.**

1. Foru arau honen 3. artikuluan aipaturiko subjektuetariko edozeinek pertsona pribatu zein publikoen alde dirua baliatzea hartuko da diru-laguntzat, foru arau honi dagokionez, baldin eta betekizun hauek betetzen badira.
  - a) Diru-laguntza pertsona onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.
  - b) Diru ematea gauzatzeko, nahitaezko baldintza izango da helburu jakin bat bete, proiektu bat burutu, jarduera bat egin, jokaera berezi bat hartu, edo inguruabar jakin bat gertatzea, eta baldintza hori beteta edo betetzeko bidean egongo da. Horrez gain, ezartzen diren betebeharrak material eta formalak bete behar ditu pertsona onuradunak.
  - c) Herri onurako edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzeko jarduera bat izan behar du xedetzat finantzaturiko proiektu, ekintza, jokaera edo egoerak.
2. Herri administrazioen arteko diru ekarpenak ez daude foru arau honen aplikazio eremuaren barruan, ezta administrazioaren beraren eta haren menpeko erakunde eta entitate publikoen artean entitate bakoitzaren jarduna bakoitzari dagokion eskumen eremuaren barruan bere osotasunean finantzatzeko egiten direnak ere. Kasu horietan, berariazko arau espezifikoen xedatutakoa aplikatuko da.
3. Ondoko hauek ez dira diru-laguntzat hartuko:
  - a) Kotizazio gabeko prestazioak.
  - b) Minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen ondorioz pertsona ezinduei ematen zaizkien prestazioak.

- c) Gizarteratzeko gutxienerako diru sarrera - oinarriko errentako prestazioak, Gizarte bazterkeriaren aurkako Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen ondoriozkoak Gizarteratzeko gutxienerako diru sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuak garatuko zuen gerora, edota Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legearen ondoriozkoak badira.
- d) Gizarte Ongizaterako Funtseko pentsioak, halako prestazioak Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen dituen maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuaren ondoriozkoak badira.
- e) Zerga-onurak.
- f) Autonomia Pertsonala Sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik datozen mendeko pertsonen aldeko prestazioak.

### **3. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.**

1. Foru arau hau Bizkaiko Lurralde Historikoko foru administrazioari aplikatuko zaio.
2. Horrez gain, zuzenbide publikokoak izanik, foru administrazioari loturik edo haren menpean dauden eta nortasun juridiko propioa duten erakunde eta gainerako entitateek emandako dirulaguntzek ere foru arau honen araberakoak izan behar dute, dirulaguntza horiek administrazio ahalekin erabileraren ondorio diren neurrian.

Foru arau honetan bildutako kudeaketa-printzipioak aplikatuko zaizkie, halaber, aurreko lerroaldean aipaturiko erakundeek, zuzenbide pribatuaren menpekoak izanik ere, inolako kontraprestaziorik gabe egiten dituzten gainerako diru-emateei ere. Edonola ere, doako ekarpenek erlazio zuzena izan beharko dute entitatea sortzeko arauan edo bere estatutuetan jasotako jardueraren xedearekin.

3. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru administrazioaren organoek edo berari loturik edo beraren menpean dauden zuzenbide publikoko entitateen organoek, beste administrazio batzuekin batera, diru-laguntzen izapidegintzan parte hartuz gero, foru arau hau aplikatuko zaie halako diru-laguntzei ere, aipaturiko organoek kudeatu behar dituzten prozedura-faseei dagokienez.

### **4. artikulua. Foru arauaren aplikazio eremutik kanpokoak.**

Foru arau honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:

- a) Pertsona onuradunak aurretik eskatu barik ematen diren sariak.
- b) Lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskunderen buruzko Eusko Legebiltzarraren martxoaren 27ko 1/1987 Legean aurreikusitako diru-laguntzak.
- c) Batzar Nagusietako taldeentzako diru-laguntzak, Batzar Nagusietako erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera.

### **5. artikulua. Diru-laguntzen araubidea.**

1. Foru arau honek, bera garatzeko xedapenek eta administrazio zuzenbideko gainerako arauak eraenduko dute diru-laguntzen banaketa, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.
2. Herri administrazio batek baino gehiagok edo beren menpeko erakunde edo entitate batek baino gehiagok sorturiko partzuergo, mankomunitate edo beste pertsona publiko batzuek ematen dituzten diru-laguntzak eta erakunde horien artean sinaturiko hitzarmenen ondoriozko diru-laguntzak, berriz, delako erakundea sortzeko tresna juridikoan edo

hitzarmenean bertan ezarritakoaren arabera arautuko dira. Tresna juridiko horrek edo hitzarmenak, edonola ere, bat etorri behar du foru arau honetan bildutako xedapenekin.

#### **6. artikulua. Europar Batasunaren funtsen kontura finantzaturiko diru-laguntzen araubide juridikoa.**

1. Kasuan-kasuan aplikatu beharreko arau europarrek eta halakoak garatu edo tokian-tokian txertatzeko arauak eraenduko dituzte Europar Batasunaren funtsen kontura finantzaturiko dirulaguntzak.
2. Foru arau honetan diru-laguntzak eman eta kontrolatzeko arautzen diren prozedurak ordeztailatzat hartuko dira, Europar Batasunaren funtsen kontura finantzaturiko diru-laguntzei zuzenean aplikatu beharreko arauari dagokienez.

### **II. KAPITULUA DIRU-LAGUNTZA PUBLIKO GUZTIETARAKO XEDAPENAK**

#### **7. artikulua. Printzipio orokorrak.**

1. Foru administrazioko edo edozein entitatetako organoek, diru-laguntzak ezartzeko proposamena eginez gero, aldeztatik ondoko hauek zehaztu behar dituzte diru-laguntzetarako plan estrategiko batean: diru-laguntzen aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, halakoak lortzeko behar den epea, aurreikusten diren kostuak, eta finantzaketa-iturriak.
2. Lortu nahi diren helburuek merkatuan eraginik izanez gero, argi eta garbi identifikaturiko hutsak zuzentzerako jo behar du orientazioak, eta ahalik txikiena izan behar du ondorioek sorturiko distortsioak.
3. Diru-laguntza publikoek, bidezkoa denean, sexuen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko baliabideak eman behar dituzte, ezberdintasunak ezabatuz eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.
4. Foru arau honen eraginpeko diru-laguntzak ondoko printzipio hauen arabera kudeatuko dira:
  - a) Publikotasuna, gardentasuna, lehiakortasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
  - b) Eraginkortasuna, Administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzeari dagokionez.
  - c) Eragimena, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeari dagokionez.

#### **8. artikulua. Diru-laguntzak emateko betekizunak.**

1. Diru-laguntzak eman baino lehen, haiek emateko oinarriak zehazten dituzten arauak onartu behar dira, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.
2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez zaie aplikatuko foru arau honen 26. artikuluan arauturiko prozedurei.
3. Diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri-arauak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
4. Gainera, diru-laguntza bat emateko, baldintza hauek bete behar dira:
  - a) Organo administratibo emaileak eskuduna izan behar du.
  - b) Diru-laguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak erantzuteko kreditu egoki eta nahikoa egon behar du.

- c) Aplikatu beharreko arauekin bat etorri izapidetu behar da laguntza emateko prozedura.
- d) Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboak aldeztu aurretik fiskalizatu behar dira, arauetan ezarritakoaren arabera.
- e) Organo eskudunak gastua onetsi behar du.

## **9. artikulua. Diru-laguntzak emateko organo eskudunak.**

1. Foru aldundia, Ahaldu Nagusia eta foru diputatuak dira diru-laguntzak emateko organo eskudunak, baita Foru Administrazioaren baitako zuzenbide publikoko entitateen organo eskudunak ere.
2. Foru arau honen 20. artikuluko 2. paragrafoaren c) idatztatian arauturiko diru-laguntzak emateko organo eskudunak hauek izango dira: foru aldundia, Ahaldu Nagusia eta foru diputatuak.

Ahaldu Nagusiak eta foru diputatuak era honetako diru-laguntzak ematean, arau bidez ezartzen diren mugak gordeko dira, zenbatekoei dagokienez.

## **10. artikulua. Pertsona onuradunak.**

1. Diru-laguntza emateko arrazoi izen den jarduera egin behar duen pertsona hartuko da diru-laguntzaren onuraduntzat, edota dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran dagoena.
2. Onuraduna pertsona juridikoa denean, pertsona onuraduntzat hartuko dira, halaber, pertsona juridikoaren bazkideak, baldin eta diru-laguntza emateko arrazoi diren jarduerak pertsona juridikoaren izenean osorik edo zati batez egiteko konpromisoa hartzen badute, eta oinarri-arauetan aukera hori aurreikusita badago.
3. Oinarri-arauetan beren-beregi aurreikusita dagoenean, onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokaerak burutzeko gauza badira edo diru-laguntza emateko arrazoi den egoeran badaude.

Pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak direnean, eta nortasunik ez badute, beren-beregi adierazi behar dira, bai eskabidean bai diru-laguntza emateko ebazpenean, elkartekide bakoitzak bere gain harturiko konpromisoak, eginkizunak betetzeari dagokionez, baita elkartekide bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere, beraiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu behar da, elkarteari pertsona onuraduna den neurrian dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Foru arau honen 35. eta 59. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igaro arte ezin daiteke elkartea desegin.

## **11. artikulua. Erakunde laguntzaileak.**

1. Ondoko hauek izango dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin loturiko ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta beraren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietanak, oinarri-arauetan hala ezarrita dagoenean, edota jasotako funtsak aldeztu aurretik eman eta banatu gabe diru-laguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakundeon ondarearen parte izango.
2. Ondoko hauek har daitezke erakunde laguntzaileak: erakunde eta gainerako entitate publikoak; herri administrazioek partaidetza osoa edo partaidetzaren gehiengoa duteneko merkataritza-entitateak; zuzenbide publikoko erakunde edo entitateak; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian

aipaturiko elkarteak, eta kaudimen eta eraginkortasunari buruz ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko nahiz pribatuak.

3. Estatuko Administrazio Orokorrek, autonomia-erkidegoek eta udal korporazioek erakunde laguntzaile jardun ahal izango dute, foru administrazioak, bere erakunde publikoek edo zuzenbide publikoari loturik jardun behar duten gainerako entitateek emandako dirulaguntzei dagokienez. Modu berebean, foru administrazioak eta bere erakunde publikoek erakunde laguntzaile jardun ahal izango dute, Estatuko Administrazio Orokorrek, autonomia-erkidegoek eta udal korporazioek emandako diru-laguntzei dagokienez.

## **12. artikulua. Pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko betekizunak.**

1. Diru-laguntza emateko arrazoi den egoeran dauden pertsona edo entitateak, edota oinarri-arauetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak biltzen dituztenak izan daitezke pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak.
2. Ondoko egoeratariko edozeinetan dauden pertsona edo entitateak ezin izan daitezke foru arau honetan arauturiko diru-laguntzen pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak, dirulaguntzaren izaeragatik beragatik diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri-arauetan kasu hori salbuetsi ezik:
  - a) Epai irmoaren bidezko kondena baten ondorioz, diru-laguntza edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izana.
  - b) Konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso izana, konkurtsoaren adierazpena jaso izana, salbu hitzarmen baten eraginkortasunez lortu bada, esku-hartze judizialaren menpean egotea edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak gertatu izana, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epea artean amaitu barik dagoela.
  - c) Dirlako pertsona edo entitateak errudunak direla adierazi deneko auziren batengatik, Administrazioarekin sinaturiko edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
  - d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuren batean egotea, gai horiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.
  - e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak beteta ez izatea, indarreko xedapenen arabera. Aurreko lerroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzei.
  - f) Zerga-egoitza arau bidez zerga-paradisutzat harturiko herrialde edo lurralde batean izatea.
  - g) Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak ordaintzeari dagokionez, egunean ez egotea.
  - h) Sexuarengatiko edonolako diskriminaziorik sortzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izana, zehapenean ezarritako epean zehar.
  - i) Ebazpen irmoaren bidezko zehapen baten ondorioz, foru arau honen edo bestelako araudietako xedapenen arabera diru-laguntzak jasotzeko aukera galdu izana.
  - j) Foru arau honen 10. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren lerrokadan aurreikusitako elkarteak ezin izan daitezke onuradunak, baldin eta haien kideetariko edozein goiko debeku egoeratariko edozeinetan badago.
  - k) Diru-laguntzak jasotzeko debekuek eragina izango dute, halaber, horiek jaso dituzten enpresen jarraipentzat jo daitezkeen enpresetan, enpresa horietako pertsonengatik edo

beste egoera batzuegatik hala sumatzen denean, edo horietatik eratorri direla uste denean, aldatzeagatik, bat egiteagatik edo ondorengo izateagatik.:

3. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5 eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku arrazoietak baten bat biltzen duten elkarteak ezin izango dira inola ere izan foru arau honetan arauturiko diru-laguntzen pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak. 1/2002 Lege Organikoaren 30.4. artikuluan xedaturikoa aplikatuz, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik elkarte baten inskripzio prozedura administratiboa etenez gero, delako elkarte hori ere ezin izango da pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea izan, harik eta ebazpen judicial irmo baten ondorioz dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte.
4. Sexuen arteko ezberdintasunak zuzendu nahi diren kasuetan izan ezik, ezin izango dira pertsona onuradunak izan kideak onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuarengatik diskriminaziorik egiten duten elkarte edo erakundeak, ezta sexuarengatik diskriminaziorik sortzen duen jardueraren bat egiten dutenak ere.
5. Artikulu honen 2. idatz-zatiko b), d), e), f), g), j) eta k) letretan eta 3. idatz-zatian jasotako debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute debekuetarako arrazoi diren inguruabarrek dirauten bitartean, honako artikuluko honen 2.e) idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari kalterik egin gabe.
6. Artikulu honen 2. paragrafoko a), h) eta i) idatz-zatietan jasotako debekuak automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmoak zehaztuko du debekuen iraupena. Halakorik ezean, arau bidez ezarritako prozeduraren arabera zehaztuko da iraupena, baina debekua epai irmo baten ondorioa ez bada, ezin izango da bost urtetik gorakoa izan.
7. Artikulu honen 2. idatz-zatiaren c) letrean jasotako debekua aintzat hartu eta bere iraupena zehazteko, urriaren 30eko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen testu bateginaren 50. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da, 49.2.a) artikuluari dagokiola.
8. Artikulu honen 2. eta 3. paragrafoetan aipatu diren eta onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko aukera eragozten duten debeku egoeretan ez daudela frogatzeko, pertsona edo entitateek bide hauek baliatu ahal izango dituzte: lekukotza judiciala, ziurtagiri telematikoak edo datu transmisioak, ezarri beharreko arauetan zehaztutakoaren arabera, edo ziurtagiri administratiboa, kasuan kasu. Agiri horren orde, erantzukizunpeko aitortpena baliatu ahal izango da, agintari administratibo edo notario publiko baten aurrean egiletsiz gero.

### **13. artikulua. Pertsona onuradunen betebeharrak.**

1. Hona hemen pertsona onuradunaren betebeharrak:
  - a) Diru-laguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
  - b) Diru-laguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileari betekizun eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, baita diru-laguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu diren jarduera eta helburua egin eta lortu dituela ere.
  - c) Organo emaileak edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen ekintzei men egitea, baita kontrol erakunde eskudunek egin dezaten beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontroli ere, eta aipaturiko ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak ematea.



- d) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik jasoz gero, organo emaileari edo erakunde laguntzaileari halakoan berri ematea.

Halako laguntza, sarrera edo baliabideak jaso behar direla jakin bezain laster eman behar da egoeraren berri, eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

- e) Diru-laguntza emateko ebazpen proposamena eman baino lehen, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean dagoela egiaztatzea. Betebehar hori ez da eskatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzen kasuan.
  - f) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen oinarri-arauetan eskatzen diren kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
  - g) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
  - h) Foru arau honen 17. artikuluan jasotako zabalkunde neurriak hartzea.
  - i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
  - j) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein zertzelada objektibo edo subjektibo aldatuz gero, entitate emaileari edo entitate kudeatzaileari aldaketaren berri ematea.
2. Diru-laguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileari artikuluan honen 1. paragrafoaren b) idatzatian ezarritako zehaztasunak justifikatzeko betebeharrak betetzea izango da Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean diru-laguntzen jasotzaileei ezartzen zaien kontu ematea bideratzeko modua.

#### **14. artikulua. Erakunde laguntzaileen betebeharrak.**

1. Hona hemen erakunde laguntzaileen betebeharrak:
- a) Diru-laguntzaren oinarri-arauetan eta entitate emailearekin sinaturiko hitzarmenean ezarritako irizpideen arabera jasotako funtsak ematea pertsona onuradunei.
  - b) Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren betekizun eta baldintzak benetan eta eraginkortasunez betetzen ote diren egiaztatzea, baita diru-laguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu diren jarduerak eta helburua egin eta lortu ote diren ere.
  - c) Diru-laguntza ematen duen organoari jasotako funtsak benetan eman direla frogatzea, eta, kasua denean, pertsona onuradunek aurkezturiko frogagiria ematea.
  - d) Organo emaileak funts horien kudeaketaz egiten ditzan egiaztapen ekintzei men egitea, baita kontrol erakunde eskudunek hala estatukoek, nola autonomikoek edo Europar Batasunekoek egin dezaten beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontroli ere, eta aipaturiko ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak ematea.
2. Foru administrazioak edo bere erakunde publikoek erakunde laguntzaile dihardutenean, beren menpeko organo eskudunek gaubzatuko dituzte aurreko paragrafoaren d) idatzatian aipaturiko egiaztapen eta kontrol ekintzak, Europar Batasuneko kontrol erakundeak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumenak urratu gabe.

## **15. artikulua. Erakunde laguntzaileekiko lankidetzeta-hitzarmenak.**

1. Organo administratibo emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzeta-hitzarmena egingo da, eta bertan erakunde laguntzaileak bere gain harturiko baldintza eta betebeharrak arautuko dira.
2. Hitzarmen horretan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:
  - a) Lankidetzaren eta erakunde laguntzailearen xedearen definizioa.
  - b) Erakunde laguntzaileak kudeatu behar dituen diru-laguntzei buruzko arau berezien identifikazioa.
  - c) Lankidetzeta-hitzarmenaren iraunaldia.
  - d) Erakunde laguntzailearen alde ezartzen den konpentsazio ekonomikoa, halakorik badago.
3. Herri administrazioek, beren erakunde autonomiadunek, sozietate publikoek edo beste erakunde publiko batzuek erakunde laguntzaile dihardutenean, sinatu beharreko hitzarmenak sinatuko dituzte organo administratibo emailearekin, eta funtsak banatu eta emateko betekizunak, eta kontuak eman eta justifikatzeko irizpideak zehaztuko dira hitzarmen horietan.
4. Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuaren menpeko pertsonak direnean, sozietate publikoak alde batera utzita, publikotasun, lehiakortasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabeko prozedura baten bitartez hautatuko dira aurrez, eta hitzarmen baten bidez formalizatuko da lankidetzeta, lankidetzaren xedeagatik beragatik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen testu bategina bete-betean aplikatu beharrekoa denean izan ezik.

## **16. artikulua. Diru-laguntzak emateko oinarri-arauak.**

1. Foru administrazioaren eremuan, edota erakunde publikoen eta zuzenbide publikoko gainerako erakundearen eremuan, foru administrazioari loturik edo bere menpean badaude eta nortasun juridiko propioa badute, foru aldundiak ezarriko dituzte kasuan kasuko diru-laguntzak emateko oinarri-arauak, zerbitzu juridikoek txostena egin ondoren.
2. Diru-laguntzak emateko oinarri-arauak, gutxienez, ondoko alderdi hauek zehaztuko dituzte:
  - a) Diru-laguntzaren xedearen definizioa.
  - b) Pertsona onuradunek eta, kasuan kasu, foru arau honen 10. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoaren bigarren lerroaldean jasotako entitateetako kideek diru-laguntzak jasotzeko bete behar dituzten betekizunak, baita eskabideak aurkezteko era eta epea ere.
  - c) Kaudimenari eta eraginkortasunari dagokienez, foru arau honen 11. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsona juridikoek bete behar dituzten baldintzak.
  - d) Diru-laguntza emateko prozedura.
  - e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, kasuan kasu, irizpideon haztapena.
  - f) Diru-laguntzaren zenbatekoa edo haren zenbateko bakoiztua zehazteko irizpideak.
  - g) Diru-laguntza emateko prozedura antolatzeke, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea.

- h) Pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak dirulaguntzaren helburua lortu dela eta jasotako funtsak behar bezala aplikatu direla frogatzeko epe eta era.
- i) Beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.
- j) Foru arau honen 21.4. artikuluan aurreikusitako erantzukizunpeko aitortpenean jasotzen diren datuak egiazkoak direla frogatzeko agiriak aurkezteko epea.
- k) Diru-laguntzak ematean ezarritako baldintzak ez betetzea mailakatzeko irizpideak, halakorik gertatzen denerako. Pertsona onuradunak jaso behar duen azken kopurua edo, kasuan kasu, itzuli behar duen kopurua zehazteko aplikatuko dira mailakatzeko irizpideok, eta proportzionaltasun printzipioaren arabekoak izango dira.

### **17. artikulua. Emandako diru-laguntzen publikotasuna.**

1. Organo administratibo emaileek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte lehia-araubidean emandako diru-laguntzak, ondoko hauek adierazita: deialdia, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa, diru-laguntzaren helburua edo helburuak, eta dirulaguntza bakoitza aurrekontuko zein egitarau eta kredituri egotzi behar zaion.
2. Ondoko kasu hauetan ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Aldizkari Ofizialean diru-laguntzak argitaratzea:
  - a) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak, banan-banan harturik, 3.000-tik beherakoak direnean. Kasu honetan, oinarri arauak beste prozedura batzuk baliatzea aurreikusi beharko dute, diru-laguntzen ezaugarri berezien nahiz zenbatekoen eta laguntza-kopuruaren arabera, pertsona onuradunen publikotasuna bermatzeko.
  - b) Diru-laguntzaren xedeagatik, pertsona onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohorea edo norbere eta familiaren intimitatea errespetatu eta zaintzearen aurkakoa izan daitekeenean, ohorerako eskubidearen, norbere eta familiaren intimitaterako eskubidearen eta nor bere irudia izateko eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren ondorioz, baldin eta diru-laguntzari buruzko arauetan hala aurreikusita badago.
3. Pertsona onuradunek ageriko egin behar dute, era egokian egin ere, diru-laguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintza guztien finantzaketaren publikotasuna.

### **18. artikulua. Diru-laguntza jasotzen duten jardueren finantzaketa.**

1. Lagundutako jarduerari erantzuteko norberak finantzaketazentzako jakin bat jartzeko eskatu ahal izango dute diru-laguntzari buruzko arauak. Foru arau honen 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egiaztatu behar da lagundutako proiektu edo ekintzan norberaren funtsak jarri direla.
2. Diru-laguntzari buruzko arauak zehaztuko dute helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasun edo bateraezintasunaren araubidea, direla estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk emandakoak, direla nazioarteko erakundeek emandakoak.
3. Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.
4. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak ezertan aldatuz gero, eta, edonola ere, diru-laguntzarekin batera berari buruzko arauetan onarturiko kasuetatik kanpoko beste ekarpenik jasoz gero, diru-laguntza emateko ebazpena alda liteke, hari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

5. Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan aurreikusita badago, pertsona onuradunei igorritako funtsek sortzen dituzten finantza-etekinek diru-laguntzaren zenbatekoa gehituko dute, eta lagundutako jarduerarako erabiliko dira.

Pertsona onuraduna herri administrazio bat baldin bada, paragrafo hau ez da aplikatuko.

#### **19. artikulua. Berme araubidea.**

Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan ezarriko da, hala behar denean, pertsona onuradunek edo erakunde laguntzaileek eratu beharreko bermeen araubidea, baita bermeok eratu, gordailutu eta kitatzeko bideak ere.

## **I. TITULUA DIRU-LAGUNTZAK EMAN ETA KUDEATZEKO PROZEDURAK**

### **I. KAPITULUA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

#### **20. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedurak.**

1. Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagokaren bitartez izapidetuko da. Foru arau honi dagokionez, honako honetan datza norgehiagoka deritzon prozedura: diru-laguntzak emateko, aurkezturiko eskabideak erkatu egiten dira; oinarri-arauetan eta deialdian alde aurretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera, eskabideen arteko lehenetsunak ezartzen dira; eta irizpideok aplikatuz baloraziorik altuena lortu duten eskabideei adjudikatzen zaie laguntza, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz.

Kasu honetan, organo instrukzio-egileak diru-laguntza emateko proposamena egingo dio organo emaileari.

Salbuespen modura, diru-laguntzaren helburu edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bitartez izapidetzea, oinarri-arauetan beren-beregi agerraraziko da norgehiagokarik gabe izapidetuko dela diru-laguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko direla funtsak baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Salbuespen modura, era berean, eta oinarri-arauetan aurreikusita badago, organo eskudunak diru-laguntzetarako gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzaren pertsona onuradunen artean.

2. Diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:
  - a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak.
  - b) Ematea bera edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezarrita duten diru-laguntzak, laguntza bakoitzari buruzko arau berriazkoei jarraituz aplikatu behar den prozedura baliatuko baita halakoak emateko.
  - c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko diru-laguntzak.
3. Ezin eman daiteke deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen diru-laguntzarik.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala,

ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

5. Dagokion urtekitaldi ekonomikoa amaitzean, burututako dirulaguntza programak ebaluatuko dituzte Foru Aldundiaren Sailek eta erakunde autonomoek, neurtu ahal izateko programa horiekin lortutako emaitzak, erabilgarritasuna eta eragin soziala eta programa horiek mantendu ala kentzearen komenigarritasuna.
6. Aldundiak seihilabetero jakineraziko dio Batzar Nagusien Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari zeintzuk diru-laguntza eman dituen «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitara eman gabe, baita 2. idaz-zatiko c) letran aurreikusitakoaren arabera emandakoena ere. Era berean, aurreko idaz-zatian ezarritakoaren arabera egindako diru-laguntzen programen ebaluazioaren edukinaren berri emango dio Batzorde horri.

## **II. KAPITULUA**

### **DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKAREN BITARTEZ EMATEKO PROZEDURA**

#### **21. artikulua. Hasiera.**

1. Diru-laguntzak emateko prozedura administrazioaren kabuz hasten da beti.
2. Organo eskudunak onarturiko deialdiaren bitartez abiatuko dira, betiere, Administrazioaren kabuz hasitako prozedurak, eta deialdian garatuko da diru-laguntzak emateko prozedura, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen printzipioen arabera. Deialdian, gainera, ondoko kontu hauek zehaztuko dira nahitaez:
  - a) Oinarri-arauak zein xedapenetan ezartzen diren eta xedapen hori zein aldizkaritan argitaratu den, oinarri-arauok beren espezifikotasunagatik deialdian bertan agertu ezik.
  - b) Diru-laguntza egozteko aurrekontu kredituak eta deialdiko diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa zein diren, kreditu baliagarrien barruan, edo, halakorik zehaztu ezean, kalkulatu den zenbatekoa. Horrez gain, soberako aurrekontu krediturik izanez gero, zein irtenbide aukeratuko den adieraziko da, hala behar denean.
  - c) Diru-laguntza emateren xedea, baldintzak eta helburua.
  - d) Diru-laguntza norgehiagokaren bitartez ematen dela adieraziko da, edo, hala ez bada, norgehiagokarik gabeko araubidea aplikatzeko salbuespenezko egoera justifikatuko da.
  - e) Diru-laguntza eskatzeko betekizunak eta haiek egiaztatze modua.
  - f) Prozeduraren instrukzio eta ebazpenerako organo eskudunen aipua.
  - g) Eskabideak aurkezteko epea —eskabideoi, bestetik, artikuluko honen 3. paragrafoan aurreikusitakoak aplikatuko zaizkie.
  - h) Ebazpena eman eta jakinarazteko epea.
  - i) Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioak.
  - j) Zenbait kasutan, eskabidea berriro egiteko aukera, foru arau honen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.
  - k) Ebazpenak administrazio bidea amaitzen ote duen adieraziko da, eta, hala ez bada, zein organori jarri behar zaion gora jotzeko errekurtsua.
  - l) Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko diru-laguntza norgehiagokarik gabeko prozeduraren bitartez ematen denean.

- m) Jakinarazi edo argitaratzeko bidea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
- 3. Eskabideekin batera, arauan edo deialdian zehazturiko agiri edo informazioak aurkeztuko dituzte interesdunek. Pertsona onuradunak eskabidea aurkezte hutsak esan nahi du baimena ematen diola organo kudeatzaileari zerga-administrazioek eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak luzatu beharreko ziurtagiriak eskatu eta biltzeko.

Eskabideak eta agiri osagarriak bide telematikoen bitartez aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera jokatuko da.

- 4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoari dagokionez, zenbait agiriren ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu ahal izango da, diru-laguntzari buruzko arau berariazkoak aukera hori onartuz gero. Kasu horretan, diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan zehazturiko epearen barruan, aitortpenen jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu beharko da diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen.
- 5. Eskabideak deialdiari buruzko arauan eskatzen diren betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean eskabidea zuzentzeko eskatuko dio organo eskudunak interesdunari, eta adieraziko dio ezen, hala egin ezik, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera horretarako ebazpena eman ondoren.

## **22. artikulua. Instrukzioa**

- 1. Deialdian zehaztuko da zein organori dagokion dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa egitea.
- 2. Instrukzioa egiteko organo eskudunak bere kabuz egingo ditu ebazpen proposamena emateko oinarri izan behar duten datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat hartzen dituen ekintza guztiak.
- 3. Instrukzioaren baitan ekintza hauek egongo dira:
  - a) Organo eskudunak beharrezkotzat hartzen dituen txostenak edota diru-laguntzari buruzko arauetan eskatutakoak eskatzea.
  - b) Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan aurreikusita badago, aurretiazko ebaluazio fase bat ezarri ahal izango da, dirulaguntzaren pertsona onuraduna izateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko.
  - c) Eskabide edo eskaeren ebaluazioa, diru-laguntzari buruzko arau berariazkoan edo, kasuan kasu, deialdian ezarritako balorazio- irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera eginga.
- 4. Behin eskabideak ebaluatuz gero, egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena eman behar du instrukzioaz arduratzen den organoak.

Oinarri-arauetan organo ebaluatzaileak aurreikusiz gero, bera izango da aurreko lerroaldean aurreikusitako txostena emateko organo eskuduna. Instrukzioa egiten duen organoak txostena eta ebazpen proposamena aurkeztuko dizkio organo ebazleari.

Oinarri-arauetan aurreikusita badago, instrukzioa egiten duen organoak, ebazpen proposamena egin baino lehen, behin-behineko ebazpen proposamena egin ahal izango du, behar bezala arrazoitua izango dena. Behin-behineko ebazpen proposamena pertsona interesdunei jakinarazi behar zaie, deialdian edo oinarrietan beretan ezarritako moduan, eta 10 eguneko epea emango da alegazioak azaltzeko.

Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da, baldin eta prozeduran ez badago edo kontuan hartzen ez bada beste inolako egitaterik edo interesdunek azaldutakoak ez beste alegazio edo frogarik. Kasu horretan, azaldutako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Interesdunek azaldutako alegazioak aztertu egingo dira, halakorik badago, eta gero behin betiko ebazpen proposamena emango da. Ebazpen proposamenean, diru-laguntzaren onuradun izateko proposatzen den edo proposatzen diren eskatzailea edo eskatzaileak eta diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dira, ebaluazioa eta bera egiteko irizpideak zehazturik.

5. Oinarri-arauek jakinarazi beharra ezarri ezik, behin betiko ebazpen proposamena ez zaie jakinaraziko instrukzio fasean pertsona onuradunak izateko proposatu diren interesdunei. Organo eskudunak behin betiko ebazpena jakinarazi ondoren, hamar eguneko epea egongo da ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.
6. Behin-behineko eta behin betiko ebazpen proposamenek —oinarri-arauetan aurreikusita daudenean— ez dute proposaturiko pertsona onuradunaren aldeko inolako eskubiderik sortzen Administrazioari begira, harik eta diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi arte.

Behin betiko ebazpen proposamena emandakoan, organo ebazleari aurkeztuko zaio.

### **23. artikulua. Ebazpena.**

1. Instrukzioa egin duen organoak egindako ebazpen proposamenaren arabera ebatziko du organo eskudunak prozedura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89. artikuluan eta, kasuan kasu, berariazko arau edo deialdian aurreikusitakoari jarraituz.
2. Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena, eta, edonola ere, prozeduran behar bezala egiaztaturik geratu behar dute harturiko ebazpenaren funtsek.
3. Diru-laguntzaren hartzailea edo hartzaileen zerrenda jasotzeaz gain, ebazpenak berenberegiri agerrarazi beharko du gainerako eskabideen ezespena, halakorik badago.
4. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea ezin da sei hilabetetik gorakoa izan, lege mailako arau batek hori baino epe luzeagoa ezarri edo Europar Batasuneko arauetan aukera hori aurreikusita egon ezik. Deialdian zehaztutako egunaz geroztik zenbatuko da epea, deialdiak berak bere ondorioak geroagoko data baterako atzeratu ezik.
5. Gehienezko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunek zilegi izango dute diru-laguntza emateko eskabidea administrazio isiltasunez ezetsi dela ulertzea.

### **24. artikulua. Ebazpenaren jakinarazpena.**

1. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie prozeduraren ebazpena interesdunei. Jakinarazpen horren edo argitalpenaren praktikak bat etorri behar du aipaturiko legearen 59. artikuluan jasotako xedapeneekin.



2. Organo eskudunak prozeduraren ebazpena jakinarazi ondoren, hamar eguneko epea egongo da ebazpena onartzeko, eta epe hori beren-beregiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

#### **25. artikulua. Eskabideak berriro egiteko aukera.**

1. Diru-laguntzaren helburua eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea bada, eta behin-behineko ebazpen proposamenean jasotzen den diru-laguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkezturiko eskabidean agertzen dena baino, diru-laguntzari buruzko oinarri-arauek aukera eman dezakete pertsona onuradunari eskabidea berriro egin dezala eskatzeko, konpromiso eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzaren arabera egokitu ditzan.
2. Behin instrukzioko organoak eskabidea onetsiz gero, ebazpena emateko organo eskudunari igorriko zaio, jardun guztiekin batera.
3. Edonola ere, eskabideak berriro eginez gero, diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, baita eskabide edo eskaerak baloratzeko ezarritako irizpideak ere.

### **III. KAPITULUA DIRU-LAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA**

#### **26. artikulua. Diru-laguntzak zuzenean ematea.**

1. Foru arau honetan xedatutakoaren arabera aplikatu beharreko baldintza eta konpromisoak zein diren ezarriko dute dirulaguntza emateko ebazpenak eta, kasuan kasu, foru arau honen 20.2. artikulua a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenek. Hitzarmenak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.
2. Foru arau honen 20. artikuluko 2. paragrafoaren c) idatztatian arauturiko diru-laguntzak emateko ebazpenak ondoko alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:
  - a) Diru-laguntzen xedearen definizioa, ondoko xehetasunak adierazita: diru-laguntzen berezitasuna, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak, edota deialdi publikoa egiteko eragozpena justifikatzen dutenak.
  - b) Aplikatu beharreko araubide juridikoa.
  - c) Pertsona onuradunak eta laguntza-motak.
  - d) Diru-laguntza emateko prozedura eta, kasuan kasu, pertsona onuradunek eta, bidezkoa bada, erakunde laguntzaileek dirulaguntzei emandako aplikazioa justifikatzeko araubidea.

### **IV. KAPITULUA DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOA KUDEATU ETA JUSTIFIKATZEKO PROZEDURA**

#### **27. artikulua. Pertsona onuradunek diru-laguntzaren xede diren jarduerak birkontratatzea.**

1. Foru arau honi dagokionez, diru-laguntzaren xedea den jarduera osorik edo zati batez hirugarren pertsona batzuek egitea hitzartzen duenean ulertuko da pertsona onuradun batek birkontratatzen duela. Birkontratazio kontzeptu honetatik kanpo gelditzen da pertsona onuradunak jarduera lagundua bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.
2. Diru-laguntzari buruzko arau berariazkoetan aurreikusita egon ezik, pertsona onuradunak ezin izango du jarduera birkontratatu, ez osorik ez zati batez. Pertsona onuradunak hirugarrenei birkontratatzeko dien jarduerak ez du gaindituko diru-laguntzari buruzko oinarri-



arauetan ezartzen den ehunekoak. Oinarri-arauetan halakorik zehazten ez bada, lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren %50 birkontratatu ahal izango du pertsona onuradunak gehienez.

Ezin izango da inola ere birkontratatu lagundutako jardueraren kostua gehitu eta haren edukari balio erantsirik ez dakarkion jarduerarik.

3. Hirugarrenekin hitzarturiko jarduera-zatia diru-laguntzaren zenbatekoaren %20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, birkontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:
  - a) Kontratua idatziz egin behar da.
  - b) Kontratua egin baino lehen, diru-laguntza ematen duen erakundeak hartarako baimena eman behar du, oinarri-arauetan zehazten den moduan.
4. Ezin izango da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta goiko paragrafoko betekizunak bete beharra saihesteko bada.
5. Kontratatistak pertsona onuradunari begira bakarrik egongo dira beharturik, azken honek hartuko baitu bere gain, Administrazioari begira, diruz lagundutako jarduera burutzeko erantzukizun osoa.
6. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, pertsona onuradunen ardura izango da diruz lagundutako eta hirugarrenekin hitzarturiko jarduera egitean diru-laguntzari buruzko arau berariazkoetan laguntza jaso dezaketen gastuen izaera eta zenbatekoaz ezarritako mugak errespetatzea, eta kontratatistak foru arau honen 41. artikuluan aurreikusitako lagundu beharrari loturik egongo dira, muga horiek betetzen ote diren behar bezala egiaztatu ahal izateko.
7. Pertsona onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu lagundutako jarduerak osorik edo zati batez egitea ondoko hauetariko ezeinekin:
  - a) Foru arau honen 12. artikuluan jasotako debeku egoeretako baten batean dauden pertsona edo entitateak.
  - b) Kontratazioaren xedea den jarduera egiteko beste dirulaguntzarik jaso duten pertsona edo entitateak.
  - c) Ordainketak eragiketaren kostu osoaren ehuneko baten arabera zehazten direneko bitarteko edo aholkulariak, ordainketa hori egindako lanaren edo zerbitzuen merkatu balioari erreferentzia eginez justifikatu ezik.
  - d) Pertsona onuradunarekin zerikusia duten pertsona edo entitateak, ondoko baldintzak bete ezik:
    1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
    2. Aldez aurretik organo emailearen baimena lortzea, oinarri arauetan zehazten denaren arabera.
  - e) Deialdi eta programa berean laguntza edo diru-laguntza eskatu baina halakorik lortu ez duten pertsona edo entitate eskatzaileak, dela betekizunak ez betetzeagatik dela gutxieneko balorazioa ez lortzeagatik.

## **28. artikulua. Diru-laguntza publikoen justifikazioa.**

1. Arau bidez zehazten den eran dokumentatuko da dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete eta lortzearen justifikazioa; izan ere, egindako gastua justifikatzen duen kontuaren bitartez egin liteke, edo, bestela, gastu hori moduluka

egiazta liteke, kontabilitate orriak aurkeztuz, betiere berariazko arauetan xedatzen denaren arabera.

2. Justifikatzeko kontu ematea pertsona onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bere barruan ondoko agiriok sartu behar dira, aitorlearen erantzukizunaren pean: gastuaren frogagiriak edo diru-laguntzaren helburua bete dela egiaztatu eta balio juridikoa duen beste edozein agiri. Bestetik, diru-laguntza publikoen berariazko oinarri-arauetan zehaztuko dira justifikazio kontuak emateko modua eta epea.

Oinarri-arauetan aurreikuspenik izan ezean, diru-laguntzarekin finantzaturik egin diren jardueren eta haien kostuaren aitorpena jaso beharko du kontuak, egindako gastu guztiak banakaturik, eta, beranduen jota, jarduera egiteko epea amaitu eta hiru hilabeteko epearen barruan aurkeztuko da.

3. Gastuak egiaztatzeko, fakturak eta, fakturen pareko balio egiaztatzailea izanik, merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak erabiliko dira, arau bidez ezarritakoaren arabera.

Gastuen egiaztapena faktura elektronikoen bitartez ere egin ahal izango da, baldin eta zerga-eremuan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte.

Arau bidez, gastuaren frogagiriak baliozkotu eta zigilatzeke sistema bat ezarriko da, diru-laguntzen pilaketa kontrolatzeko aukera emango duena.

4. Jarduerak finantzatzeko, diru-laguntza ez ezik norberaren funtsak edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuk ere erabiltzen direnean, halakoen zenbatekoa eta jatorria egiaztatu beharko dira justifikazioan, baita lagundutako jardueretan nola aplikatu diren ere.
5. Ondasun higiezinik eskuratuz gero, artikuluko honen 3. paragrafoan ezarritako frogagiriez gain, dagokion erregistro ofizialean inskribaturik eta behar bezala egiaztatutako dagoen tasatzaile independente baten ziurtagiria ekarri beharko da.
6. Foru arau honen 10. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoaren bigarren lerroaldean aurreikusitako entitateetako kideek nahitaez bete behar dituzte justifikazio betekizunak, pertsona onuradunaren izenean eta beraren kontura egindako jardueri dagokienez, aurreko paragrafoetan zehazten den moduan bete ere. Dokumentazio hori, izan ere, pertsona onuradunak diru-laguntza eskatu zuenak, alegia aurkeztu beharreko justifikazioaren parte izango da.
7. Pertsona jasotzailearen baitan egoera jakin bat gertatzen delako ematen diren diru-laguntzen kasuan, justifikazio bakarra beharko da: diru-laguntza eman baino lehen, zuzenbidean onartzeko modukoa den edozein bide baliatuz delako egoera hori egiaztatzea.

Horrez ez du baztertzeko baina, egoera hori benetan gertatzen ote den egiaztatzeke kontrolak egiteko aukera.

8. Diru-laguntza kapitulu honetan ezarritakoaren arabera justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo hura behar bezala ez justifikatzeak diru-laguntza itzuli beharra ekarriko du, foru arau honen 33. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

## **29. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

1. Foru arau honetan aurreikusitakoari dagokienez, ondoko hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozen, hertsiki beharrezkoak diren eta diru-laguntzei buruzko oinarri-arauetan ezarritako epeen barruan egiten diren gastuak. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

2. Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan beren-beregi kontrakoa xedatu ezik, hura erregulatzeko arauetan zehazturiko justifikazio epea amaitu baino lehen benetan ordaintzen dena hartuko da egindako gastutzat.
3. Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean finkatutako zenbatekoak baino gehiagokoa bada, kontratu txikian, pertsona onuradunak hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan edo, kasuan kasu, dirulaguntzarako eskabidean azaldu behar dira, eta haien artean aukeratzeko eragimen- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

4. Inbentarioan sar daitezkeen ondasunak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetuz gero, ondoko arau hauek aplikatuko dira:
  - a) Oinarri-arauek zehaztutako dute zenbateko epean zehar erabili beharko dituen pertsona onuradunak ondasunok diru-laguntzaren helburu zehatzerako. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, epe hori ezin da bost urte baino laburragoa izan, eta, gainerako ondasunen kasuan, ezin da bi urte baino laburragoa izan.

Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, inguruabar hori eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskrituran agerrarazi behar dira. Xehetasunok, gainera, dagokien erregistro publikoan inskribatu behar dira.

- b) Aurreko idatz-zatian erabileraz aipaturiko betebeharra ez betetzea eta hala gertatu dela ulertuko da ondasuna besterendu edo kargatuz gero— diru-laguntza itzultzeko arrazoia izango da, foru arau honen II. tituluaren II. kapituluaren xedatutakoaren arabera, eta itzulketa ordaindu beharri loturik geratuko da ondasuna, edukitzailea edozein delarik ere, edukitzaile hori erregistroko fede publikoak babesturiko hirugarren bat izan ezik, edo, ezin inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ondasunak onustez eta titulu zuzenez edo merkataritzako nahiz industriako establezimenduetan eskuratu direla frogatu ezik.
5. Ondoko kasu hauetan ez da ulertuko 4. paragrafoan erabileraz aipaturiko betebeharra hautsi dela:
  - a) Erregistro publiko batean ezin inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ematekoak ziren ondasunen ordezkari diru-laguntzaren helburua lortzeko era analogoan balio duten beste batzuk ematen direnean eta ezarritako epea amaitu arte erabilerari eusten zaionean, baldin eta administrazio emaileak ordezkari baimentzen badu.
  - b) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eta administrazioak baimena ematen badu, erabilerari aldatzen denean, edo ondasuna besterendu edo kargatzen denean. Kasu honetan, gelditzen den epean zehar ondasunei eman beharreko erabilerari emateko betebeharra bereganatuko du eskuratzailerak, eta betebehari hori betetzen ez badu, diru-laguntza itzuli behar izango du.
6. Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauek ezarritako dituzte, bidezkoa denean, inbentarioan sar daitezkeen ondasunen amortizazioaren inguruan egokitzen hartzen diren erregela bereziak. Hala ere, amortizazio gastuak diru-laguntza jaso dezakeen gastutzat hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Diru-laguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.
- b) Amortizazioa eskuarki onarturiko kontabilitate arauekin bat etorritik kalkulatzeko.

- c) Kostua bakar-bakarrik diru-laguntza jaso dezakeen epeari egokitzea.
7. Finantza-gastuek, lege- edo finantza-aholkularitzako gastuek, notario- edo erregistro-gastuek, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko peritu gastuek eta administrazio gastu espezifikoek dirulaguntza jaso dezakete, lagundutako jarduerarekin zuzeneko erlazioa badute, jarduera hori behar bezala prestatu edo egiteko ezinbestekoak badira, eta oinarri-arauetan aukera hori aurreikusita badago. Salbuespen modura, banku bermeei dagozkien gastuek ere jaso ahal izango dute diru-laguntza, diru-laguntzari buruzko arau erregulatzailleek aukera hori beren-beregi aurreikusten badute.

Ondoko hauek ez dira inola ere hartuko diru-laguntza jaso dezakeen gastutzat:

- a) Bantu kontuetako interes zordunak.
  - b) Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak.
  - c) Prozedura judizialen gastuak.
8. Tributuak diru-laguntza jaso dezakeen gastutzat hartzen dira, pertsona onuradunak benetan ordaintzen baditu. Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean, ezin dira inola ere diru-laguntza jaso dezakeen gastutzat hartu, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.
9. Zeharkako kostuei dagokienez, eskuarki onarturiko kontabilitate- arau eta printzipioen arabera arrazoizkoa den zatia egotziko dio pertsona onuradunak lagundutako jarduerari, eta, betiere, kostu horiek jarduera benetan egiten den epeari dagozkion neurrian.

### **30. artikulua. Diru-laguntzen egiaztapena.**

- 1. Diru-laguntzaren justifikazioa egokia ote den egiaztatuko du organo emaileak, baita diru-laguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu diren jarduera eta helburua egin eta lortu ote diren ere.
- 2. Erakunde laguntzaileak, halakorik badago, organo emailearen izenean eta beraren kontura egingo ditu foru arau honen 14. artikuluko 1. paragrafoaren b) idatz-zatian aurreikusitako egiaztapenak.

## **V. KAPITULUA AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA**

### **31. artikulua. Gastua eta ordainketa onesteko prozedura.**

- 1. Diru-laguntzarako deialdia egin edo diru-laguntza zuzenean eman baino lehen, gastua onetsi beharko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ekonomi Jaurpideari buruzko Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.
- 2. Diru-laguntza emateko ebazpenak dagokion gastua egiteko konpromisoa dakar berarekin.
- 3. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, pertsona onuradunak justifikatu egin behar du diru-laguntza emateko arrazoi den jarduera, proiektu, helburu edo jokaera egin, burutu, lortu edo hartu duela, diru-laguntzari buruzko arau erregulatzailleetan ezarritakoaren arabera.

Justifikatu beharrekoak justifikatu ezik, edo foru arau honen 33. artikuluan aurreikusitako arrazoietako baten bat gertatuz gero, diru-laguntza osoa edo haren zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

- 4. Konturako ordainketak egin ahal izango dira, diru-laguntzaren izaerak hartarako justifikazioa ematen badu. Gisa horretako abonamenduek zatikako ordainketak egitea ekarri ahal izango dute, lagundutako ekintzak burutu ahala egingo direnak; halakoetan, aurkezturiko justifikazioaren heineko kopuruak ordainduko dira.

Ordainketa aurreratuak ere egin ahal izango dira, eta halakoek funtsak justifikazioaren aurretik ematea ekarriko dute, diru-laguntzari datxezkion jarduerak egin ahal izateko beharrezkoa den finantzabide modura.

Ezin izango da inola ere ordainketa aurreraturik egin pertsona onuradunen alde, konkurtsoaren adierazpena eskatu badute, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso badute, konkurtsoaren adierazpena jaso badute, esku-hartze judizialaren menpean badaude edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak gertatu badira, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epaia artean amaitu barik dagoela.

Konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egin ahal izateko, eta dagokien berme araubidea ezartzeko, aukera hori berenberegi aurreikusi behar da diru-laguntzari buruzko arau erregulatzaillean.

5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean ez dagoen artean, edo diru-laguntza itzultzea bidezkoa dela dioen ebazpen baten ondorioz zordun den artean, ezin izango zaio pertsona onuradunari diru-laguntza ordaindu.

Aurreko leerroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzei.

## **II. TITULUA DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA**

### **I. KAPITULUA ITZULKETA**

#### **32. artikulua. Diru-laguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna.**

1. Diru-laguntza emateko ebazpena deuseztatzeko arrazoiak dira:
  - a) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1. artikuluan aipatutakoak.
  - b) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Jaurpideari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, kreditu eza edo eskasia.
2. Diru-laguntza emateko ebazpenaren deuseztagarritasun arrazoiak izango dira lege antolamenduaren gainerako arau-hausteak eta, bereziki, foru arau honetan bildutako erregelenak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
3. Diru-laguntza emateko egintzan, aurreko paragrafoetan aipatutako arau-hausteetarikoren bat gertatzen denean, organo emaileak hura bere kabuz berriro aztertzeari ekingo dio, edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102 eta 103. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, kaltegarritasunaren adierazpena egingo du eta ondoren haren aurka joko du.
4. Jasotako kopuruak itzuli beharra ekarriko du administrazioaren edo epaitegiaren deuseztasun edo deuseztapen adierazpenak.
5. Hurrengo artikuluan aipatuko diren itzulketa egiteko arrazoietarikoren bat gertatzen denean, administrazioak ez du bere kabuz berrikusiko diru-laguntza emateko egintza.

### 33. artikulua. Itzulketa egiteko arrazoia.

1. Hurrengo kasuetan ere, jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidezotasuna erabakitzen den data arteko berandutza-korrituak itzuli behar izango dira:
  - a) Diru-laguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkututzen direnean.
  - b) Xedea, jarduera, proiektua edo diru-laguntza emateko funtsaden jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.
  - c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea edo behar adinako justifikaziorik ez egitea, foru arau honen 28. artikuluan eta, hala badagokio, diru-laguntzari buruzko arau erregulatzaileretan xedatutakoaren arabera.
  - d) Foru arau honetako 17. artikuluan 3. paragrafoan bildutako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
  - e) Foru arau honetako 13 eta 14. artikuluetan xedatutako egiaztapeneko eta finantza-kontrolako jardunak direla eta, aurre egin, aitzakiak jarri, eragozpenak ipini edo ezetza ematen denean, baita ere kontabilitateko nahiz erregistroko betebeharrak edo agiriak gordetzekoak betetzen ez direnean, horrek guztiak ondoko hauek egiaztatzeko ezintasuna dakarrenean: jasotako funtsen erabilera egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek naziokoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa— emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.
  - f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezarritako betebeharrak —onuradunok diru-laguntza ematen zaiela-eta bereganatzen dituzten konpromisoak barne— betetzen ez direnean, baldin eta horrek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo diru-laguntza ematean aintzat hartu den jokabidea hartzeko erari eragin badio edo horrekin zerikusia badu.
  - g) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak —baita onuradunok dirulaguntza ematen zaiela-eta bereganatzen dituzten konpromisoak ere, aurreko idatz-zatian aipatutakoez bestelakoak— betetzen ez direnean, baldin eta horrek guztiak ondoko hauek egiaztatzeko ezintasuna badakar: jasotako funtsen erabilera egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek —naziokoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa— emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.
  - h) Europar Batasunaren Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartean xedatutakoa dela bide, diru-laguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzen denean.
  - i) Diru-laguntzari buruzko arau erregulatzaileretan xedatutako gainerako balizkoetan.
2. Pertsona onuradunaren edo, hala denean, erakunde laguntzailearen betetze-gradua betetze erabatekora nabarmenki hurbiltzen denean eta haiek beren konpromisoak betetzeko zalantzarik gabeko jarduna egiaztatzen dutenean, foru arau honen 16. artikuluko 2. paragrafoaren k) idatz-zatian aipatutako irizpideak ezarritako zehaztutako kopurua izango da itzuli beharko dutena.
3. Aldi berean, foru arau honetako 18. artikuluan 3. paragrafoan xedatutako kasuan, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako gaindikina itzuli egin beharko da, baita horri dagozkion berandutza-korrituak ere.

### **34. artikulua. Itzultzeko kredituen izaera eta horien itzulketa eskatzeko prozedurak.**

1. Itzultzeko kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, eta, haien kobratzeko orduan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Jaurpideari buruzko Foru Arauan xedatutakoa ezarriko da.
2. Diruaren legezko interesari ehuneko 25eko gehikuntza ezarri ondoren lortutakoak izango dira diru-laguntzei buruzko gaietan ezar daitezkeen berandutza-korrituak, salbu eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko Foru Arauan besterik xedatzen bada.

Artikulu honetan arautzen den berandutze interesa ehuneko 3,75 izango da, eta 2016ko abenduaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2017. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 7/2016 Foru Arauko. (abenduaren 30eko BAO) lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

3. Europar Batasunaren funtsen itzulketei, Europar Batasunaren arautegiak kasu bakoitzean xedatutako tratamendua emango zaie destino gisa.
4. Diru-laguntzen itzulketa eskatzeko prozedurek beti izango dute izaera administratiboa.

### **35. artikulua. Preskripzioa.**

1. Administrazioak itzulketa aintzatetsi edo likidatzeko duen eskubidearen preskripzio-epea lau urtekoa izango da.
2. Kasuan-kasuan erabakiko da epe hori zenbatzeko era:
  - a) Pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak justifikazioa aurkezteko epea iraungitzen denetik.
  - b) Diru-laguntza ematen den unetik, foru arau honetako 28. artikulua 7. paragrafoan xedatutako kasuan.
  - c) Pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak epe jakin baterako gorde beharreko edo eutsi beharreko baldintzak edo betebeharrak ezarri gero, epe hori amaitzen den unetik.
3. Preskripzio-epearen zenbaketa eten egingo da:
  - a) Administrazioak itzulketa-arrazoietarikoren bat ote dagoen egiaztatzeko xedez egindako edozein egintzarengatik, pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea egintza horretaz formalki jabetuta egonik.
  - b) Edozein motatako errekursoak jartzeagatik, erruduntasuntestigantza zigor jurisdikziora bidaltzeagatik edo fiskaltzari salaketa aurkezteagatik, baita errekurso horien bidean egindako jardunengatik ere, betiere pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea jardun horiez formalki jabetuta egonik.
  - c) Pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak, dirulaguntza edo itzulketa likidatzeko xedez, egindako edozein jardun sinesgarriengatik.

### **36. artikulua. Itzulketa egin behar dutenak.**

1. Foru arau honen 33. artikuluan jasotako kasuetan, pertsona onuradunak eta erakunde laguntzaileak jaso dituzten kopuruak eta kopuru horiei dagozkien berandutza-korrituak itzuli egin beharko dituzte, oso-osorik edo horien zati bat, foru arau honen 29. artikuluko 5. paragrafoaren b) idatz-zatian xedatutakoaren kaltetan jo gabe. Betebehar horretatik kanpo ere, bestelako zehapenak ere ezar daitezke, hala badagokio.



2. Foru arau honetako 10. artikulua 2. paragrafoan eta 3. paragrafoaren bigarren lerroaldean aipatutako pertsona eta erakundeetako kideak, pertsona onuradunaren itzulketa egiteko betebeharraren erantzule solidarioak izango dira, diru-laguntza jaso eta egiteko konpromisoa hartu zuten jarduerari doakiela.

Pertsona onuradunaren legezko ordezkariak izango dira, hark jarduteko gaitasunik ez duenean, itzulketa egiteko betebeharraren erantzule solidarioak.

Foru arau honen 10. artikuluko 3. paragrafoan aipatu erakundeetako kide, partaide edo titularkideak izango dira diru zehapenaren erantzule solidarioak, nor bere partaidetzaren arabeko proportzioan, ondasun erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak direnean.

3. Ondoko hauek izango dira izango dira diru zehapenaren erantzule subsidiarioak: merkataritza sozietateetako administratzaileak, edo, beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izanik, hautsitako betebeharrak betetzeko beren egitekoak diren beharrezko egintzak egiten ez dituztenak, haiek ez betetzea ahalbidetzen duten erabakiak hartu edo beren menpekoak direnek har ditzaten uzten dutenak.

Halaber, itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak izango dira, betiere, ezarri behar zaizkien legezko edo estatutueta xedapenen arabera, beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak eduki eta beren jarduerak utzi dituztenak.

4. Desegin edo likidatu diren sozietate edo erakundeen kasuan, bete gabe dituzten itzulketa-betebeharrak kapitalaren partaide diren bazkide edo partaideei eskualdatuko zaizkie, eta horiek izango dira haien erantzule solidarioak, adjudikatu zaien likidazioaren kuotaren balioaren mugaraino.
5. Itzulketa egin behar duena hiltzen bada, hark itzultzeko zituen zenbatekoak ordaintzeko betebeharra haren kausadunei eskualdatuko zaie, betiere zuzenbide zibil erkideak, foralak edo oinordetzari ezarri beharreko zuzenbide bereziak kasu jakin batzuetarako, bereziki inbentario onuraren arabera onartutako jarauntsiaren kasurako, xedatutakoaren kaltetan jo gabe.

## **II. KAPITULUA**

### **DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEKO PROZEDURA**

#### **37. artikulua. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko eskumena.**

1. Pertsona onuradunari edo erakunde laguntzaileari dirulaguntzen itzulketa eskatzeko eskumena izango du organo emaileak, kapitulu honetan araupetutako prozeduraren ebazpenaren bitartez, foru arau honen 33. artikuluan jasotako kopuruak itzultzeko aurreikusten diren kasuetariko baten bat gertatzen dela uste duenean.
2. Itzulketa erabaki dutenak Europar Batasuneko organoak badira, errekursoaren kudeaketa dagokion organoa izango da erabaki horiek betearazi beharko dituenak.
3. Diru-laguntza Europar Batasunak edo Europar Batasuneko beste erakunde batek eman duenean, eta itzulketa egiteko betebeharra jarduketara horiek egiteko legezko gaitasuna eman zaien erakundeei dagokien fiskalizazio jardueraren ondorioz sortu bada, baina ez foru arau honen III. tituluaren araupetutako diru-laguntzen finantzakontrolaren ondorioz, diru-laguntzaren kudeaketa dagokion organoak eman beharko du itzulketa egiteko erabakia. Administrazioak bere kabuz, edo herri funtsak fiskalizatzeko legezko gaitasuna eman zaien administrazio beste erakunde edo organo batzuek proposatuta, emango du erabaki hori.

#### **38. artikulua. Diru-laguntza itzultzeko prozedura.**

1. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. tituluaren administrazio prozedurei buruz jasotzen diren xedapen orokorrak izango ditu aginduzko diru-laguntzak itzultzeko prozedurak, betiere



foru arau honetan eta hori garatzeko xedapenetan ezarritako berezitasunen kaltetan jo gabe.

2. Administrazioak berak hasiko du diru-laguntzak itzultzeko prozedura, organo eskudunaren erabaki baten bidez, bai bere ekimenez bai goragoko mailatik etorritako agindu baten bidez, beste organo batzuek egindako eskari arrazoitu baten bidez edo salaketa baten bidez. Organo administratibo eskudunak luzatutako finantzakontrolari buruzko txostenaren ondorioz ere hasiko da.
3. Prozedura izapidetzean, nolana ere, entzunaldi-eskubidea bermatuko zaio interesatuari.
4. Itzulketa prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 12 hilekoa izango da, hura hasteko erabakia hartu zen datatik zenbatuta. Epe hori eten eta luzatu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan xedatutakoaren arabera.

Ebazteko epea beren-beregiko ebazpena jakinarazi gabe igarotzen denean, prozeduraren iraungipena gertatuko da, baina, aldi berean, prozedura amaitu arte jardunekin jarrai daiteke, eta, epe hori amaitu arte, ez da ulertuko preskripzioa etenik dagoela egindako jarduketan zioz.

5. Itzulketa egiteko prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari.

### **39. artikulua. Jardunen koordinazioa.**

Diru-laguntzen hartzaileek funtsei emandako aplikazioaz organo kudeatzaileak erabakia emanik ere, horrek ez du baztertuko foru administrazioako finantza-kontrolako organoek dagozkien jarduketak egiteko aukera.

## **III. TITULUA DIRU-LAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA**

### **40. artikulua. Diru-laguntzen finantza-kontrolaren xedea eta kontrol hori egiteko eskumena.**

1. Foru administrazioak edo hari lotutako edo haren menpeko erakunde eta entitateek Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura emandako diru-laguntzak direla eta, dirulaguntza horiek jaso dituzten pertsona onuradunei eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileei ezarriko zaie diru-laguntzen gaineko finantza-kontrola.
2. Diru-laguntzen finantza-kontrolaren xedea honako hauek egiaztatzea izango da:
  - a) Pertsona onuradunak diru-laguntza egokia eta zuzena jaso ote duen.
  - b) Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzaren kudeaketan eta ezarpenean beren betebeharrak bete ote dituzten.
  - c) Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza behar bezala eta zuzenki frogatu ote duten.
  - d) Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako frogagirien arabera, egindako eragiketak diru-laguntzaren bidez benetan eta erregulartasun osoz finantzatu ote diren.
  - e) Diruz lagundutako jarduerak egoki eta zuzenki finantzatu ote diren, hau da, foru arau honetako 18. artikuluan 3. paragrafoan ezarritako eran.

- f) Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek administrazioari aitortu ez dioten eta hurrengoetan eraginik izan dezakeen egitaterik, inguruabarririk edo egoerarik ote dagoen: diruz lagundutako jardueraren finantzaketan, diru-laguntzaren lorpen egoki eta zuzenean, diru-laguntzaren gozamen edo frogaketan eta diru-laguntzaren bidez finantzatutako eragiketen errealitate eta erregularitasunean.
3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari dagokio dirulaguntzen finantza-kontrola egiteko eskumena, betiere Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eratzikitako eskumenen eta foru arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren kaltetan jo gabe.
  4. Diru-laguntzen finantza-kontrola izan daiteke:
    - a) Pertsona onuradunen eta erakunde laguntzaileen kontabilitateko erregistroak, finantza-egoerak edo kontuak eta horien euskarri diren agiriak aztertzea.
    - b) Eragiketak banan-banan eta emandako diru-laguntzei eragin dakizkieken edo horiekin zerikusia duten eragiketa zehatzak aztertzea.
    - c) Emandako diru-laguntzekin zerikusia izan edo horiengan eragina izan dezakeen egintza-sorta bateko arazo partzialak eta zehatzak egiaztatzea.
    - d) Finantzatutako inbertsioei buruzko materialak egiaztatzea.
    - e) Diru-laguntzari buruzko arau erregularizatzaileetan eta, hala badagokio, diru-laguntza emateko ebazpenean kasu bakoitzerako xedatutakoaren arabera egin behar diren kontroleko jardun zehatzak.
    - f) Diru-laguntza jaso duten jardueren ezaugarri bereziak kontuan hartuta egin behar diren gainerako egiaztapen guztiak.
  5. Finantza-kontrola pertsona onuradunekin elkartutako pertsona fisiko eta juridikoen eremura ere zabal daiteke, baita xedeak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektuak burutzeko edo jokabideak hartzeko interesatua izan daitekeen beste edozein pertsonarenera ere.

#### **41. artikulua. Laguntzeko betebeharra.**

1. Pertsona onuradunak, erakunde laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten gainerakoek laguntza eman behar dute, eta foru administrazioeko organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza-kontrolako eginkizunak eratzikita dituzten organoek eskatzen dizkieten agiri guztiak eman beharko dituzte; hori dela eta, organo horiek hurrengo ahalmenak izango dituzte:
  - a) Egiaztatu beharreko agiritara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
  - b) Bai negozioaren lokaletan, bai diruz lagundutako jarduera garatzen deneko edo diru-laguntzaren pentzutan finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularitasuna begiztatzea ahalbidetzen deneko gainerako establezimendu edo tokietan sartzeko askatasuna.
  - c) Faktura, agiri baliokide edo ordezkoen aldakiak lortu edo agiriok atxikitzeko ahalmena, baita diru-laguntza behar ez bezala lortu, erabili edo beste xede bat eman zaion zantzuak daudela ondoriozta daitekeen eragiketei buruzko agirien aldakiak lortu edo agiriok atxikitzekoa ere.
  - d) Diru-laguntzen kobrantza egin ahal izan deneko edo funtsak baliatu ahal izan direneko finantza-erakundeen banku-kontuetan sartu eta horiei buruzko informazioa lortzeko askatasuna.

2. Betebehar hori betetzeari uko egitea, foru arau honetako 33. artikuluan xedatutako ondorioetarako, aurre egin, aitzakiak jarri, eragozpenak ipini edo ezetza ematearen parekotzat hartuko da, hori dela-eta kasu bakoitzean gerta daitezkeen zehapenen kaltetan jo gabe.

#### **42. artikulua. Kontroleko langileen eskumenak.**

1. Diru-laguntzen finantza-kontroleko eginkizunetan diharduten kontroleko organoetako funtzionarioek agintaritzaren agenteen izaera edukiko dute.

Izaera bera edukiko dute, arautegi erkidearen arabera, finantza-kontroleko eginkizunak eratzikita dituzten organoetako funtzionarioek.

2. Agintariak —edozein izaeratakoak izanda ere—, eta herri administrazioetako bulegoetako, erakunde eta zuzenbide publikoko bestelako entitateetako buruek edo zuzendariak eta, oro har, herri administrazioetako eginkizunak egiten dituztenek edo beren lana erakunde horietan garatzen dutenek behar bezalako lankidetzeta eta laguntza eskaini beharko dizkiete diru-laguntzen finantza-kontrola egiteaz arduratzen diren funtzionarioei.
3. Epaitegiek eta auzitegiek administrazioari eman beharko dizkiete, ofizioz edo administrazioak berak eskaturik, beren ardurapeko epai jarduketei darizkien eta diru-laguntzen ezarpenean garrantzia izan dezaketen datu guztiak, betiere sumarioko dilijentziekiko sekretua gordez.
4. Diru-laguntzen finantza-kontroleko jardunetan izandako partaidetzaren ondorioz jurisdikzio organoren batek funtzionarioen bati deituz gero, foru aldundiaren lege zerbitzuek halako funtzionarioei dagokien laguntza juridikoa eman beharko dute.

#### **43. artikulua. Kontroleko langileen betebeharrak.**

1. Egiten diharduten lana dela-eta ezagutzen dituzten arazoekiko bapestekotasuna eta sekretua gorde beharko dituzte diru-laguntzen finantza-kontrola egiten duten kontroleko langileek.

Kontrol horren jarduketan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak honetarako baino ezin izango dira erabili: kontrol horri ezarritako xedeetarako, itzulketa-eskakizuna egiteko oinarri gisa, eta, hala badagokio, arau-hauste administratiboa, kontabilitateko erantzukizuna edo zigor erantzukizuna izan daitezkeen egitateak organo eskudunei jakinarazteko.

2. Funtzionario jarduleak, finantza-kontrola egitean, espedientean egiaztatutako datuak arau-hauste administratiboa izan daitezkeela edo kontabilitateko nahiz zigor erantzukizunak erakar ditzakeela uste badu, foru administrazioaren Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren titularrari jakinarazi beharko dio uste hori, beronek, bidezkoa bada, jardundakoa organo eskudunari igor diezaion, bidezko prozedurak has daitezen.

#### **44. artikulua. Finantza-kontroleko prozedura.**

1. Diru-laguntzen finantza-kontrolaren jarduketa, Foru Aldundiak onetsitako urteko auditoria-planera egokituko da.
2. Pertsona onuradunei eta, hala badagokie, erakunde laguntzaileei egin beharreko finantza-kontroleko jardunei hasiera emateko, jardun horien jakinarazpena egingo zaie pertsona eta erakundeoi. Jakinarazpen horretan honakoak adieraziko dira: egiteko diren jardunen izaera eta hedadura; jardunak egingo dituen kontroleko ekipoa agertuko den data; hasteko haren eskuetan jarri behar diren agiriak eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako osagaiak, eta finantza-kontrolaren jardunen oinarri-arauak. Jardun horiek, aldi berean, diru-laguntzen organo kudea-tzaileei ere jakinaraziko zaizkie.

Kontrollean erakunde laguntzaileek edo pertsona onuradunek egoitza aldatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-kontrolerako erakundeari jakinarazi beharko diote. Aurreko

egoitzan egindako kontrol-jardunak baliagarriak izango dira, aldaketa jakinarazten ez den artean.

3. Finantza-kontrolaren garapenean, foru arau honetako 33. artikuluan xedatutakoez bestelako arrazoiengatik jasotako kopuruaren itzulketa eragin dezaketen inguruabarrak daudela erabakitzen bada, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko zaizkio egitate horiek; organo horrek hartu diren neurriei buruzko txostena eman beharko du, eta, horren guztiaren ondorioz, finantza-kontrolako prozeduraren etendura erabaki ahal izango da.

Prozeduraren etendura pertsona onuradunari edo erakunde laguntzaileari jakinarazi beharko zaie.

4. Etenduraren amaiera, nolana ere, pertsona onuradunari edo erakunde laguntzaileari jakinarazi beharko zaie; amaiera hori horrelakoetan gertatuko da:
  - a) Organo emaileak bere ustez egokiak diren neurriak hartu eta gero, horiek kontrolako organoari jakinarazitakoan.
  - b) Etendurari buruzko erabakia hartu zenetik hiru hilabete igarotakoan, organo kudeatzaileak neurriak hartu izana jakinarazten ez badu.

5. Finantza-kontrolako eginkizunen jardueran, jasotako dirulaguntza behar ez bezala jaso, beste xede baterako erabili edo behar ez bezala justifikatu izanaren zantzuak daudela ondorioztatzen bada, fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta zantzu horiek agertu diren eragiketei buruzko bestelako agiri guztiak desagerrarazi, suntsitu edo aldatzea eragozteko beharrezko kautelazko neurriak har daitezten erabaki dezakete administrazioaren kontrol organoek.

Lortu nahi den helburuaren heinekoak izan beharko dira neurriak. Ez da sekula neurririk hartuko, baldin eta neurri horrek kalte konpongaitza edo konpondu ezinekoa ekarri ahal badu.

6. Agerian jarri diren egitateak eta horiengandik ondorioztatzen diren ondorioak jasotzen dituzten txostenak luzatutakoan amaituko dira pertsona onuradunen eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza-kontrolako jardunak.

Organo emaileak, aurreko 4. paragrafoan xedatutakoa ezarriz, diru-laguntza emateko egintzaren baliozkotasunari eragin diezaioketen jarduketan hasiera jakinarazten badu, diru-laguntzen finantza-kontrolako prozedura amaituko da, Foru Aldundiaren eskudun organoak kontrolako jarduerak jarraitzearen bidegabekeria adierazten duen ebazpena emanik; hala ere, diru-laguntza emateko egintzaren baliozkotasun osoa edo partziala adierazten duen ebazpena ematen bada, jardunak berriro has daitezke.

7. Pertsona onuradunen eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza-kontrolako jarduketak, gehienez haiei jarduketok jakinarazten zaizkien dataz geroko 12 hilabeteko epearen barruan amaitu behako dira. Hurrengo inguruabarretarikoan bat gertatzen denean, hala ere, aipatutako epe hori luzatu ahal izango da, arau bidez zehaztuko diren hedaduran eta betekizunekin:

- a) Jarduketa bereziki konplexuak izatea.
- b) Jarduketak egiten diren bitartean, onuradunak edo erakunde laguntzaileak kontrolaren garapen egokirako funtsezko informazioa edo agiriak ezkutatu dituela egiaztatuta bada.

8. Aurreko paragrafoan ezarritako epearen ondoretarako, ez dira zenbatuko ikuskatuari egotzi ahal zaizkion luzapenak, ezta arauz espezifikatzen diren etenaldi justifikatuak ere.

9. Diru-laguntzen finantza-kontrolako jardunak modu egokian bultzatzeko, kontrolerako erakundeek eskatu ahaliko dute onuraduna, erakunde laguntzailea edo laguntzeko

betebeharrera lotuta dagoen edozein bertaratzea, bere egoitzan edo horretarako izendatuko diren bulego publikoetan.

#### **45. artikulua. Finantza-kontrolako jardunetako dokumentazioa.**

1. Finantza-kontrolako jardunak dilijentzietan dokumentatuko dira, haren jarduketan ageri diren egitate aipagarrienak jasota gera daitezzen, baita txostenetan ere, horiek arau bidez zehaztuko diren edukia, egitura eta bete beharreko betekizunak edukiko dituztelarik.
2. Kontrolaren helburu izan diren pertsona onuradunei eta erakunde laguntzaileei jakinaraziko zaizkie txosten horiek. Txostenaren aldaki bat diru-laguntza eman zuen organo kudeatzaileari igorriko zaio, eta, bidezkoa bada, itzulketa-espeditentea eta zehapenespedientea hasi behar direla aipatuko zaio.
3. Dilijentziak eta txostenak agiri publikoak izango dira, eta haiek formalizatzea eragin duten egitateen froga gisa erabiliko dira, aurkakorik egiaztatzen ez bada.

#### **46. artikulua. Finantza-kontrolako txostenen ondorioak.**

1. Kontrolako organoak luzatutako txostenean, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar dela aipatzen bada, organo kudeatzaileak hilabeteko epearen barruan itzulketari buruzko espeditentea hastea erabaki beharko du, txosten horretan oinarrituta, eta hala jakinarazi beharko dio pertsona onuradunari edo erakunde laguntzaileari; azken horrek 15 eguneko epea izango du bere burua defendatzeko komenigarritzat hartzen duen guztia alegatzeko.
2. Erakunde kudeatzaileak, finantza-kontrolari buruzko txostena jaso eta hilabeteko epearen barruan, itzulketari buruzko espeditentea hastea edo haste horrekiko desadostasuna — betiere arrazoiak emanda— jakinarazi beharko dio kontrolako organoari. Azken balizko horretan, kontrolako organoa atxikita dagoen saileko edo arloko titularrak jardun-txostena eman dezake, kontrolako organoak egindako proposamenari jarraituta, eta diru-laguntzaren organo kudeatzailea menpeko den edo atxikita dagoen saileko edo arloko titularrari igorriko dio, baita organo kudeatzaileari berari ere.

Saileko edo arloko titularrak, txosten hori jasotakoan eta gehienez bi hileko epearen barruan, txostenaren edukiari buruzko adostasuna edo desadostasuna adieraziko dio kontrolako organoa atxikita dagoen saileko edo arloko titularrari. Jardun-txostenarekiko adostasunak organo kudeatzailea lotaraziko du, itzulketa egiteko espeditentea ireki dezan.

Desadostasunik izanez gero, kontrolako organoa atxikita dagoen saileko edo arloko titularrak desadostasuna ebatziko du.

3. Itzulketa-espeditentea hasitakoan, eta aurkeztu diren alegazioak ikusi eta gero edo, nolana ere, horretarako emandako epea igarotakoan, organo kudeatzaileak kontrolako organoari igorri beharko dizkio alegazio horiek, bere iritziarekin batera, organo horrek hilabeteko epearen barruan txostena eman dezan.

Itzulketa egiteko prozeduraren ebazpena ezin izango da kontrolako organoaren txostenean jasotako irizpidetik banandu. Organo kudeatzaileak irizpide hori onartzen ez duenean, ezbaia aurkeztuko du, ebazpen-proposamenaren aurretik, eta ezbai hori, ebatzi ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Jaurpideari buruzko Foru Arauan gastuei buruz eta aurreko paragrafoaren hirugarren leerroaldean aurreikusitako prozeduraren arabera ebatziko da.

4. Ebazpena eman eta gero, eta jakinerazpenarekin batera, organo kudeatzaileak kontrolako organoari helaraziko dio delako ebazpena.
5. Itzulketa egiteko prozeduraren ebazpena azaltzean 3. paragrafoan aurreikusitako izapidea alde batera uzteak ebazpenaren deuseztagarritasuna ekarriko du, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez baliozkotu ahal izango dena.

Ondorio horietarako, deuseztagarritasun auzi horretan sartuta dauden eta ezagutzen dituen itzulketa-ebazpenei buruzko txostena igorriko dio kontrol organoak Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari, Ogasun eta Finantza Sailaren titularraren bidez.

## **IV. TITULUA**

### **DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK**

#### **47. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua.**

Foru arau honetan tipifikatutako egite eta ez-egiteak dira dirulaguntzei buruzko arau-hauste administratiboak, eta halakoak zehatu ahal izango dira, baita delako arau-haustea zabarkeria hutsa bada ere.

#### **48. artikulua. Arduradunak.**

Foru arau honetan arau-haustetzat tipifikatutako balizkoetan dela egitez dela ez-egitez erori diren pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, eta foru arau honetako 10. artikuluan 3. paragrafoan aipatu nortasunik gabeko entitateak izango dira diru-laguntzei buruzko arau-hauste administratiboaren arduradunak; bereziki honako hauek:

- a) Diru-laguntzen pertsona onuradunak, baita foru arau honen 10. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoaren bigarren lerroaldean aipatu pertsona edo erakundeetako kideak, egiteko konpromisoa hartu duten eta diruz lagunduta dauden jardueri dagozkiela.
- b) Erakunde laguntzaileak.
- c) Jarduteko gaitasunik ez duten pertsona onuradunen legezko ordezkaria.
- d) Diru-laguntzaren xedearekin edo diru-laguntzaren bidezkoketarekin zerikusia duten pertsona edo erakundeak; horiek, foru arau honetako 41. artikuluan xedatutakoa betetzeko, laguntza eman beharko dute eta eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

#### **49. artikulua. Erantzukizunetik salbuetsitako balizkoak.**

Foru arau honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteek ez dute sorraraziko diru-laguntzei buruzko arau-hauste administratiboaren ziozko erantzukizunik hurrengo balizkoetan:

- a) Jarduteko gaitasunik ez dutenek egindakoak direnean.
- b) Ezinbestekoetan.
- c) Kolektibo baten erabakiaren ondorioa direnean, erabaki hori hartu zen bilerara joan ez zirenentzat edo horretan botoa bereizi zutenentzat.

#### **50. artikulua. Zigor auzien jurisdikzioko jardunak gertatzea.**

1. Jokabidea delitu gerta daitekeen balizkoetan, administrazioak jurisdikzio eskudunari igorriko dio erruduntasun-testigantza, eta ez dio jarraipenik emango zehapen prozedurari harik eta epai-agintariak epai irmoa eman arte, jardunen largespena edo artxibatzea gertatu arte edo fiskaltzak espedientea itzuli arte.
2. Epai-agintariak zehapenik ezartzen badu, ezin izango da zehapen administratiborik ezarri.

3. Baldin eta deliturik ez dagoela jo bada, administrazioak zehapen- espedientea hasi edo jarraitu egingo du, auzitegiek frogatutzat jotzen dituzten egitateetan oinarrituta.

### **51. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Foru arau honetan eta diru-laguntzen oinarri-arauetan jasotako betebeharrak ez betetzea arau-hauste arina izango da, baldin eta ez betetze hori arau-hauste larri edo oso larria ez bada eta zehapena mailakatzeko osagai gisa erabiltzen ez bada. Zehazki, hurrengo jokabideok joko dira arau-hauste arintzat:

- a) Jasotako funtsei emandako aplikazioa frogatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.
- b) Gastuak frogatzen dituzten kontuak zehaztu gabe edo osatu gabe aurkeztea.
- c) Artikulu honetako gainerako idatz-zatietan beren-beregi aipatuta ez egon arren, diru-laguntzaren etenduraren ondorioz bereganatutako betebeharrak formalak arau bidez ezarritakoaren arabera ez betetzea.
- d) Kontabilitate edo erregistro arloetako betebeharrak ez betetzea; bereziki honako hauek:
  1. Legez eskatutako kontabilitate eta erregistroetan eragiketa bat edo batzuk ez zehaztea edo alde batera uztea.
  2. Legez eskatutako kontabilitate eta erregistroak, horien euskarri diren informatikako programak eta artxiboak eta erabilitako kodeketa- sistemak eraman edo gorde behar izatearen betebeharra ez betetzea.
  3. Jarduera eta ekitaldi ekonomiko berari dagozkiorik, erakundearen benetako egoera ezagutzea eragozten duten kontabilitate bat baino gehiago eramatea.
  4. Kontuak beren izaeratik dagokienaz besteko esanahiaz erabiltzea, diruz lagundutako jardueren errealitatearen egiaztapena eragotziz.
- e) Frogagiriak edo agiri baliokideak gorde behar izatearen betebeharra ez betetzea.
- f) Erakunde laguntzaileek foru arau honen 14. artikuluan xedatzen diren baina artikulu honetako gainerako idatz-zatietan berenberegiz aipatzen ez diren betebeharrak ez betetzea.
- g) Finantza-kontrolako jardunei aurre egitea, eragozpen edo aitzakiak jartzea, edo ezetza ematea.

Diru-laguntzei buruzko arau-hauste administratiboaren arduradunak, arau-hauste horiei buruzko jakinarazpena behar bezala jasota, Foru Aldundiaren funtzionario eskudunen finantza-kontrolako eginkizunen jarduna luzatu, oztopatu edo eragozteko jarduketak egiten dituzenean ulertuko da inguruabar horiek gertatzen direla.

Hurrengo jokabideak joko dira, besteak beste, aurre egin, eragotzi, aitzakiak jarri edo ezetza ematez:

1. Agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, frogagiriak, kontabilitateko idazpenak, informatikako programa eta artxiboak, sistema eragileak eta kontrolkoak eta egiaztatzeko den bestelako edozein datu ez aurkeztea edo horiek aztertzeko erraztasunak ez ematea.
2. Agindeiei jaramonik ez egitea.
3. Adierazitako tokian eta egunean ez agertzea, bidezko arrazoirik gabe.
4. Negozioaren lokalean eta pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak jasotako funtsen justifikazio zuzenerako edo diruz lagundutako jardueraren errealitatea eta

erregulartasuna egiaztatzeko froga-zantzuak daudeneko gainerako establezimendu edo tokietan sartzeari edo horietan egoteari bidegabeki ezetza eman edo oztopoak jartzea.

5. Finantza-kontrola egiten duten kontroleko langileak derrigortzea.
- h) Foru arau honetako 41. artikuluko aipatu agiriak aurkeztu eta laguntza emateko betebeharrari lotutako pertsona edo erakundeek betebeharrari ez betetzea, horrek pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzeko ezintasuna dakarrenean.
- i) Europar Batasunaren diru-laguntzei buruzko arauetan arau-hauste arintzat tipifikatutako gainerako jokabideak.

## **52. artikulua. Arau-hauste larriak.**

Honako jokabideok joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Foru arau honen 13. artikuluko 1. paragrafoaren d) idatzzatian aipaturiko xede bererako diru-laguntzak, laguntza publikoak, sarrerak edo baliabideak lortu direla organo emailari edo erakunde laguntzaileari jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
- b) Ezarritako baldintzak ez betetzea, eta diru-laguntza eman zeneko xedeak funtsean aldaraztea.
- c) Funtsean erabileraren justifikaziorik eza, justifikazioa aurkezteko epea amaitutakoan.
- d) Erakunde laguntzailearen izaera lortzeko, diru-laguntzaren oinarri-arauetan eskatutako beharrezkoak faltsutzea edo hura lortzea eragotziko luketenak ezkatzea.
- e) Erakunde laguntzaileak bere betebeharra ez betetzea, hots, diru-laguntzak emateko orduan erabakigarriak izan diren baldintza edo betekizunak eraginkortasunez betetzen ote diren egiaztatzeko betebeharra ez betetzea, horrek itzulketa egiteko betebeharra dakarrenean.
- f) Europar Batasunaren diru-laguntzei buruzko arauetan arau-hauste oso larritzat tipifikatutako gainerako jokabideak.

## **53. artikulua. Arau-hauste oso larriak.**

Honako jokabideok joko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Diru-laguntzaren bat lortzea eskatutako baldintzak faltsutuz, edo hura ematea eragotzi edo murriztuko zuten baldintzak aipatu barik utziz.
- b) Jasotako kopuruak diru-laguntza eman zen xedeetarako ez erabiltzea, oso-osorik edo zati batean.
- c) Foru arau honen 13. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatzzatian eta 14. artikuluko 1. paragrafoaren d) idatzzatian, hurrenez hurren, xedatutako kontroleko jardunak direla eta, aurre egin, aitzakiak jarri, eragozpenak ipini edo ezetza ematea, baldin eta horrek ondoko hauek egiaztatzeko ezintasuna badakar: jasotako funtsean erabileraren egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen batek —naziokoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa— emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.
- d) Erakunde laguntzaileek diru-laguntzaren oinarri-arauetan xedatu diren irizpideen arabera jasotako funtsak pertsona onuradunei ez ematea, horrela egiteko xedatu denean.



- e) Europar Batasunaren diru-laguntzei buruzko arauetan arauhauste oso larritzat tipifikatutako gainerako jokabideak.

## **II. KAPITULUA ZEHAPENAK**

### **54. artikulua. Zehapen motak.**

1. Diru-laguntzei buruzko arau-hausteei, diru zehapenak eta, bidezkoa denean, diruzkoak ez diren zehapenak ezarriko zaizkie zigor moduan.
2. Diru zehapenak, isun finakoak edo proportziozkoak izan daitezke. Proportziozko diru zehapenak, behar ez bezala lortu, ezarri edo frogatu gabeko kopuruaren gainean ezarriko dira.

Isun finakoa 75 eta 6.000 euro bitartekoa izango da. Proportziozko isuna, berriz, behar ez bezala lortu edo aplikatu den nahiz justifikatu gabe dagoen kopuruaren bestekoa izango da gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez; eta erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatu edo justifikatutako funtsen bestekoa izango da gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez.

Diru zehapenak ez du inolako zerikusirik foru arau honetako 36. artikuluan xedatutako itzulketa egiteko betebeharrarekin, eta zehapen hori kobratzeko ere foru administrazioaren aurrekontuei buruzko arauetan zuzenbide publikoko sarreretarako xedatutako lege araubidea ezarriko da.

3. Diruzkoak ez diren zehapenak, arau-hauste larri edo oso larriak gertatu direnean ezarriko daitezke; honako hauek izan daitezke:
  - a) Herri administrazioengandik edo bestelako herri erakundeengandik diru-laguntzarik, laguntza publikorik eta abalak jaso ahal izateko eskubidea bost urte arteko eperako galtzea.
  - b) Foru arau honetan araututako diru-laguntzei doakienez, erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izateko eskubidea bost urte arteko eperako galtzea.
  - c) Herri administrazioekin bost urtera arteko epean kontratuak egiteko debekua.

### **55. artikulua. Zehapenen mailaketa.**

1. Artikulu honetan aipatzen diren arau-hausteengatiko zehapenak, ondokoak kontutan harturik graduatuko dira, kasu bakoitzaren arabera:

- a) Diru-laguntzen arloan behin eta berriro eginiko arauhausteak.

Subjektu arau-hausleari, aurreko lau urteen barruan izaera bereko arau-hauste bat — larria edo oso larria— egiteagatik, administrazio bidez eta epai irmoa dela bidez, zehapena ezarri zaionean ulertuko da inguruabar hori gertatu dela.

Inguruabar hori arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik gertatu denean, gutxieneko zehapenaren ehunekoari 10 eta 75 puntu bitarteko gehikuntza ezarriko zaio.

- b) Foru arau honen 13. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatzzatian eta 14. artikulua 1. paragrafoaren d) idatz-zatian jasotako kontrol jarduketari aurre egitea, uko egitea edo oztopoak jartzea. Inguruabar hori arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik gertatu denean, gutxieneko zehapenaren ehunekoari 10 eta 75 puntu bitarteko gehikuntza ezarriko zaio.
- c) Diru-laguntzei buruzko arau-hausteak egiterakoan iruzurrezko bideak erabiltzea.

Ondore horietarako, honakook hartuko dira, bereziki, iruzurrezko bidetzat:

1. Legez ezarritako kontabilitate eta erregistroetako funtsezko anomaliak.
2. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri faltsuak edo faltsututakoak erabiltzea.
3. Diruz lagundutako jardueraren errealitatea egiaztatzea oztopatzen duten bitarteko pertsonak edo erakundeak erabiltzea.

Inguruabar hori arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik gertatu denean, gutxieneko zehapenaren ehunekoari 20 eta 100 puntu bitarteko gehikuntza ezarriko zaio.

- d) Administrazioari jasotako diru-laguntzaren aplikazioa egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak ezkutatzea, beharrezko frogagiriak ez aurkeztuta, edo halako agiriak oso-osorik edo zehaztasunez ez aurkeztuta. Inguruabar hori arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik gertatu denean, gutxieneko zehapenaren ehunekoari 10 eta 50 puntu bitarteko gehikuntza ezarriko zaio.
  - e) Betebehar formalen betekizunean atzeratuta egotea.
2. Mailakatze-irizpideak batera ezar daitezke, aldi berean. Bestetik, e) idatz-zatian ezarritako irizpidea arau-hauste arinak egiteagatik ezarritako zehapenak mailakatzeko baino ez da erabiliko.
  3. Aurreko paragrafoetan jasotako mailakatze-irizpideak ezin izango dira erabili arau-haustea larriagotzeko, arau-haustearen jokabidearen azalpenean jasota daudenean edo administrazio egintza ez-zilegiaren beraren osagaiak direnean.
  4. Arau-hausle berari, diru-laguntza bakoitzarengatik ezarritako zehapen arinen zenbatekoak ez du guztira gaindituko hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
  5. Arau-hausle berari, diru-laguntza bakoitzarengatik ezarritako zehapen larrien eta oso larrien zenbatekoak ez du guztira gaindituko behar ez bezala lortu, ezarri edo frogatu gabeko zenbatekoa edo, erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala ezarri edo frogatutako funtsen kopurua.

## **56. artikulua. Arau-hauste arinengatiko zehapenak.**

1. Arau-hauste arin bakoitzari 75 eta 900 euro bitarteko isuna ezarriko zaio, hurrengo paragrafoan xedatuko denaren salbuespena eginez.
2. Hurrengo arau-hausteei, 150 eta 6.000 euro bitarteko isuna ezarriko zaie, kasu bakoitzaren arabera:
  - a) Legez eskatutako kontabilitate eta erregistroetan eragiketa bat edo batzuk ez zehaztea edo aipatu gabe uztea.
  - b) Legez ezarritako kontabilitatea edo erregistroak eraman beharra ez betetzea.
  - c) Jarduera berari dagozkielarik, erakundearen benetako egoera ezagutzeko aukerarik ematen ez duten kontabilitate bat baino gehiago eramatea.
  - d) Kontuak beren izaeragatik dagokienaz besteko esanahiaz erabiltzea, diruz lagundutako jardueren errealitatearen egiaztapena eragotziz.
  - e) Kontrol organoek eskatutako frogak eta agiriak ez aurkeztea edo erakusteari uko egitea.

- f) Erakunde laguntzaileek, foru arau honetako 14. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- g) Foru arau honetako 41. artikulua aipatu agiriak aurkeztu eta laguntza emateko betebeharrari lotutako pertsona edo erakundeek betebeharrak ez betetzea, horrek pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzeko ezintasuna dakarrenean.

#### **57. artikulua. Arau-hauste larriengatiko zehapenak.**

1. Arau-hauste larriari proportziozko diru-isunak ezarriko zaizkie: behar ez bezala lortu edo aplikatu den nahiz justifikatu gabe dagoen kopuruaren bestekoa gutxienez, eta kopuru hori bi halako gehienez; eta erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatu edo justifikatutako funtsen bestekoa gutxienez, eta kopuru hori bi halako gehienez.
2. Arau-hauste larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa, emandako diru-laguntzaren edo erakunde laguntzaileek jasotako kopuruaren ehuneko 50etik gorakoa izateaz gain, 30.000 eurotik gorakoa denean, eta foru arau honen 55. artikuluko 1. paragrafoaren b) eta c) idatz-zatietan jasotako inguruabarretarikoren bat gertatzen bada, arau-hausleei, gainera, hurrengo zehapenak ezar dakizkieke:
  - a) Herri administrazioarengandik edo bestelako herri erakundearengandik diru-laguntzarik, laguntza publikorik eta abalak jaso ahal izateko eskubidea hiru urte arteko eperako galtzea.
  - b) Administrazioarekin edo bestelako herri erakundeekin hiru urte arteko epean zehar kontratuak egiteko debekua.
  - c) Foru arau honetan araututako diru-laguntzei doakienez, erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izateko eskubidea hiru urte arteko eperako galtzea

#### **58. artikulua. Arau-hauste oso larriengatiko zehapenak.**

1. Arau-hauste oso larriari proportziozko diru-isunak ezarriko zaizkie: behar ez bezala lortu edo aplikatu den nahiz justifikatu gabe dagoen kopurua bi halako gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez; eta erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatu edo justifikatutako funtsak bi halako gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez.

Halere, foru arau honen 53. artikuluan b) eta d) idatz-zatietan jasotako arau-hausteei ez zaie zehapenik ezarriko, baldin eta arau-hausleak/arau-hausleek kopuruak eta horiei dagozkien berandutza- korrituak aldeztu aurretiko agindeirik gabe itzuli baditu/badituzte.

2. Arau-hauste oso larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa denean, eta foru arau honen 55. artikuluko 1. paragrafoaren b) eta c) idatz-zatietan jasotako inguruabarretarikoren bat gertatzen bada, arau-hausleei, gainera, honako zehapenak ezar dakizkieke:
  - a) Herri administrazioarengandik edo bestelako herri erakundearengandik diru-laguntzarik, laguntza publikorik eta abalak jaso ahal izateko eskubidea bost urte arteko eperako galtzea.
  - b) Administrazioarekin edo bestelako herri erakundeekin bost urte arteko epean zehar kontratuak egiteko debekua.
  - c) Foru arau honetan araututako diru-laguntzei doakienez, erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izateko eskubidea bost urte arteko eperako galtzea.

### **59. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.**

1. Arau-hausteen preskripzio-epea, arau-haustea egin eta biharamunaz geroko lau urtekoa izango da.
2. Zehapenen preskripzio-epea, zehapena ezarri zuen ebazpena irmoa egin eta biharamunaz geroko lau urtekoa izango da.
3. Preskripzio-epea eteteari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 132. artikuluan aipatutakoaren arabera jokatuko da.
4. Administrazioak bere kabuz ezarriko du preskripzioa, baina interesatuak berak ere eska dezake preskripzioaren adierazpena.

### **60. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena.**

1. Diru-laguntzei buruzko gaietako zehapenak ezartzeko eskumena, diru-laguntzaren emaile diren sailietako foru diputatuei dagokie. Gainerako erakunde emaileek emandako diru-laguntzei dagokienez, ordea, erakunde horiek atxikita dauden foru sailietako titularrei dagokie zehapenak ezartzeko erabakia hartu eta zehapenak ezartzea.

Halere, zehapena, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza, laguntza publiko eta abalak lortzeko aukera galtzea denean, edo Bizkaiko Foru Aldundiarekin edo beste herri erakunde batzuekin. kontratuak egiteko debekua, edo foru arau honetan araututako dirulaguntzak direla eta, erakunde laguntzaile legez jarduteko aukera galtzea, horrelakoetan Ogasun eta Finantzen foru diputatuari dagokio eskumen hori.

2. Eskudun den foru diputatuak izendatuko du zehapenak ezartzeko prozeduraren instrukzio-egilea, aldez aurretik eginkizun hori ezein organo administratibo eskuduni eratziki ez zaionean.

### **61. artikulua. Zehapenak ezartzeko prozedura.**

1. Diru-laguntzei buruzko gaietako zehapenak administrazio espediente bidez ezarriko dira; espediente horretan, nolana ere, eman beharreko erabakia eman aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio, eta gero Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluko II. kapituluan (Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zehatzeko Ahalari buruzkoa den horretan) xedatutakoaren arabera izapidetuko da.
2. Administrazioak bere kabuz emango dio hasiera prozedurari, organo emaileak edo erakunde laguntzaileak egindako egiaztatzejardunaren ondorioz edo foru arau honetan xedatutako finantza-kontrolako jarduketaren ondorioz.
3. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari.

### **62. artikulua. Arau-haustek egitearen ondoriozko erantzukizuna azkentzea.**

Zehapena ordainduz edo betez edo preskripzioa dela bide azkentzen da arau-hausteetatik eratorritako erantzukizuna.

### **63. artikulua. Erantzukizunak.**

1. Foru arau honetako 10. artikulua 3. paragrafoan aipatu erakundeetako kide, partaide edo titularkideak izango dira diru zehapenaren erantzule solidarioak, nork bere partaidetzaren araberrako proportzioan, ondasun erkideak edo beste edozein motatako ekonomi unitate edo ondare banatuko erkideak direnean.

2. Ondoko hauen izango dira diru zehapenaren erantzule subsidiarioak: merkataritza sozietateetako administratzaileak, edo, ezarri behar zaizkien legezko edo estatutuetao xedapenen arabera, beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan eta hautsitako betebeharrak betetzeko beren egitekoak diren beharrezko egintzak egiten ez dituztenak, haiek ez betetzea ahalbidetzen duten erabakiak hartu edo beren menpekoak direnek har ditzaten uzten dutenak.
3. Deseginda eta likidatuta egon eta legeak bazkide, partaide edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatu dien sozietate edo erakundeei dagokienez, ordaintzeko dauden zehapenak bazkide, partaide edo titularkideei eskualdatuko zaizkie, eta horiek izango dira zehapenaren erantzule solidarioak, adjudikatu izan zaien edo adjudikatu behar izan zaien likidazio kuotaren balioaren mugaraino.
4. Deseginda eta likidatuta egon eta legeak bazkide, partaide edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatu ez dien sozietate edo erakundeei dagokienez, ordaintzeko dauden zehapenak bazkide, partaide edo titularkideei eskualdatuko zaizkie, eta horiek izango dira zehapenaren erantzule solidarioak.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengoa. Diru-laguntzen finantza-kontrolak egiteko, auditore pribatuekiko lankidetzaren kontratazioa.**

1. Foru Aldundiaren organo eskudunek, diru-laguntzen finantza-kontrola egiteko, auditoriako enpresa pribatuen lankidetzara har dezakete, betiere Ekonomi Jaurpideari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera.
2. Nolanahi ere, Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiari dagokio administrazio ahalein erabileraren ondorio diren jarduketak egitea.

### **Bigarrena. Gauzazko laguntzak.**

1. Ondasun eta eskubideen doako emateek ondareari buruzko legeria izango dute aginduzko.
2. Nolanahi ere, eskuraketa, herri administrazioen kontratazioari buruzko arautegiaren menpean egongo da.

### **Hirugarrena. Administrazioak, norbanakoei interesik gabe edo merkatuko interesaren azpiko interesarekin emandako kredituak.**

Foru arau honen 3. artikuluan aipatutako erakundeek norbanakoei eman eta interesik gabe edo merkatuko interesaren azpiko interesa duten kredituek berriazko arautegi espezifikoak izango dute aginduzko, edo, horrelakorik ez badago, foru arau honetan jaso eta eragiketa horien izaerarako egokiak diren manuak, bereziki honako hauek; abiaburu orokorrak, pertsona onuradunen eta erakunde laguntzaileen baldintzak eta betekizunak, eta emateko prozedura.

### **Laugarrena. Hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sariak.**

Hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sarien esleipenari ezar dakioken araubide berezia ezarriko zaio, foru arau honen edukiaren arabera izan beharko dena, salbu eta, dirulaguntzen izaera berezia dela eta, horrelakorik ezin ezar dakikeen arazoetan.

### **Bostgarrena. Helburuen kontrola eta ebaluazioa.**

Barne auditoriak eta foru sailek, organismoek eta gainerako herri erakundeek egingo dituzte foru arau honen 7. artikuluan aipatzen diren plan estrategikoen ezarpenaren ondoriozko emaitzen kontrola eta ebaluazioa.

### **Seigarrena. Foru arau honetan aipatzen diren zenbatekoen eguneratzea.**

Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio, foru arau honetan aipatzen diren zenbatekoak foru dekretuen bidez eguneratu ahal izan ditzan.

### **Zazpigarrena. Udal finantzaketa.**

Foru arau honetan bildutako prozedurak ezin izango zaizkie ezarri Bizkaiko Foru Aldundiak lurralde honetako toki erakundeei egindako transferentziei: Gizartekutxa funtsa, Foru Aldundiaren eta Bizkaiko udalen arteko zerbitzu eta gizarte programen banaketari buruzkoa; udal finantzaketako foru funtsa; baso hobekuntzetarako funtsa; itundu gabeko zergen partaidetza; EJRren eraldaketa delaeta udalerriei emandako finantza-konpentsazioa

### **Zortzigarrena. Erakunde laguntzaileak.**

Foru arau hau indarrean jartzean izendatuta zeuden erakunde laguntzaileek eutsi egingo diote izaera horri, baldin eta beraientzat 11 eta 12. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen badituzte.

### **Bederatzigarrena. Toki erakundeak.**

Toki erakundeek emandako diru-laguntzen lege araubidea arautuko duen foru araua onesten ez den bitartean, diru-laguntza horiek emateko prozedurak, haiek berez dituzten antolaketa eta jardunbide baldintzen arabera egin beharko dira.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa. Diru-laguntzak emateko gehieneko zenbatekoak.**

Foru Aldundiak foru arau honetako 9. artikulua 2. paragrafoan aipatzen diren zenbatekoak arautzen ez dituen bitartean, Ahaldu Nagusiak eta foru diputatuek eman ditzaketen diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak urriaren 28ko 201/2003 Foru Dekretuan xedatutakoak izango dira.

### **Bigarrena. Prozeduren araubide iragankorra.**

1. Foru arau hau indarrean jartzean lehendik hasita zeuden diru-laguntzak emateko prozedurei, prozedura horiek hasi ziren unean indarrean zegoen arautegia ezarriko zaie.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren kaltetan jo gabe, foru arau honetan aipatutako egintzen finantza-kontrolako, itzulketako eta berrikuspenerako prozedurak ezarri beharrekoak izango dira behin indarrean jartzen direnez gero.
3. Foru arau honetan xedatutako zehapen araubidea pertsona onuradunei eta erakunde laguntzaileei ezarriko zaie, xedapen honetan xedatutako balizkoetan, betiere araubide juridikoa aurreko legerian xedatutakoa baino onuragarriagoa bada.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Arauen indargabetzea.**

1. Indargabetuta geratu dira beren-beregi Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Jaurpideari buruzko urriaren 14ko 10/1997 Foru Arauaren II. tituluko IV. kapituluaren I. atala, VII. tituluko II. Kapituluak eta 123. artikuluko 3. paragrafoa.
2. Indargabetuta geratu dira foru dekretu honekin bat ez datozen edo bertan xedatutakoaren aurkako lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

3. Indargabetutako testuak garatzeko emandako erregelamendu arauak indarrean jarraituko dute, foru arau honetan xedatutakoaren aurka ez datozen heinean, harik eta foru arau hau garatzeko eman daitezten arauak indarrean jarri arte.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Foru arau hau indarrean jartzea.**

1. Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.